

Arrasate

P R E S S

1999ko
Apirilak 30
449. zenb.



Medikuntza eta Natura bat direnean

**IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: MAITE ARISTEGI
KIROL ELKARRIZKETA: B. DOMINGUEZ • KULTURA ELKARRIZKETA: MIKEL MARKEZ**

Udari begira, kilo batzuk kentzeak arduratzen zaitu?

MAIATZEAN
GIMNASIOAREN
MATRIKULAN
%15eko
BEHERAPENA

Oraindik garaiz zabilta!

LIRAINek zure gorputza puntuan jartzeko dauden hiru faktoreen konbinazio egokiena eskaintzen dizu

DIETAK

- Kontrol medikuarekin
- Guztira janez
- Esfortzu handirik gabe

KIROLA

- Mediku azterketa matrikula barruan
- Lurrun-bainua dohainik
- Ordu-tegi zabala
- Kirol-teknika berriak

GORPUTZ TRATAMENDUAK

- Hidromasajea
- Teknika modernoena
- Drenaje linfatikoa
- Zelulitiaren aurkako tratamenduak
- Tratamendu errealizmatzaileak



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 17

Amaraunak

Tunisian izan naiz Bazko Astean, lehen aldiz. Herri arabiarra izanik, deigarria egin zait emakumeen estatus normala, janzkeran eta portaeran. Irakurrita jakin dut duela 40 urte, Frantziatik independentzia eskuratu eta berehala, emakumearen aldeko legedi zabala jarri zutela indarrean. Hortik, nonbait, gaurko egoera.



Mikel Irizar

Tunisiako ibilien artean tapiz saltzailearen ohiko eraso ere izan dugu. Oraingo hau oso landua. Kairouanen geunden, autoz, mezkiren bila, motordun batek laguntza eskaini zigunean eta jarraitzeko agindu.

Gelditu zenean, dinar batzuk eman eta agur esatera gindoazela, bat-batean sortutako bere lagun bat itsatsi zitzaigun, Medina zaharrean zehar gu gidatzeko. Arrapaladan gidatu ere

labirintoan barrena, mila hizkuntzaz osatutako porrusaldan herriari buruzko kontuak errezzitazen zituen bitartean. Tartean, noski, tapizgintza sarri aipatuz. Aitaren batean geunden berriro autoaren ondoan, eta parean —kasualitatez— lehen ikusi gabeko tapiz denda bat agertu zen.

“Hemen erakutsiko dizuet arestian azaldutakoa”

esanaz, sartu gintuen barrura. Nik berehala: “Ez dugu ezer erosiko”. Eta berak: “Ez! ez! ikusi besterik ez!” Mentazko te bana aurrean jarri eta han abiatu zen espektakulua. Hiru mutil etengabe hasi ziren mugitzen dendan zehar, hamar segunduero tapiz berri bat ager zedin gure begien aurrean, saltzaileak bakoitzaren azalpena egiten zigun bitartean. Nik berriro: “Ez dugu ezer erosiko”. Eta berak: “Ikusi besterik ez!” Tapizen piloa ia metro erdira iritsi

zenean, nik temati: “Ez atera gehiago, ez dugu ezer erosiko”. Orduan berak: “Ez dira garestiak. Zein duzu gustukoen?”

Motordunarekin ordubete lehenago hasitako amarauna ondo landutakoa zen, baina ez gintuen trabatu. “Ez” bota nion lehor, eta zutitu egin ginen. Irteera bidean oraindik: “Eta txikiago hau ohe barrenerako?” “Ez”. “Eta txikitxo hau telefono azpirako?” “Ez”. “Dinar bakar bat balio duen hau ere ez?” “Ez”. Une batez Gotzon Garate ere ikusi nuen, bere txapel okerraz eta ahots mehez “euskalduna, berbakoa” esanez.

Ez naiz topikoen zalea. Baina amaraunak ez ditut gustuko. Armiar-mak zenbat denbora ematen duen amarauna egiten eulitxo bat harrapatze-ko, horretarako behar diren maltzurke-ria, pazientzia eta kalkuluaz pentsatze-ak asaldatu egiten nau. Estilo zuzena dut atseginago, jirabueltarik gabeko portaerak. Naturaltasuna eta bat-batekotasuna.

Beldur naiz, ordea, amaraunak erabiltzearena ez ote den gure artean ere zabaltzen ari.

“Estilo zuzena dut atseginago, jirabueltarik gabeko portaerak”

“Hurbiletik ikusi izan dut pobretasuna eta jende asko dagoela jateko ere ez duena. Eskerrak eman behar ditut hemen jaio naizelako”

Jose Jabier Barkero

ITURRI ONETIK

Aita Menni ez dago salgai

Antza denez, enpresa amerikar batek eskaintza bat egin du Aita Menni erosteko. Badirudi 7.000 milioi pezeta ordaintzeko prest zeudela. Aita Menniren erantzuna, ezetz. Ospitaleko arduradunek ez dute baieztatu ez ezeztatu informazio hau.

Aita Menni irabaz asmorik gabeko enpresa pribatua da, Bihotz Deunaren Ahizpa Opitalarioen Kongregazioak daramana. Egoitza probintziala Palencian du. Etxe nagusia, berriz, Erroman. Bilbon ere badu eguneko zentrua. Arrasateko ospitalean 220 langile ditu.

Aita Mennik ospe handia hartu du azken urteotan. Zenbait espezialitatetan puntan-puntan dabil. Juan Mari Bاندres senatore ohia izan da azken aldian izan duen gaixo ospetsuenetako bat.

9.984

Milioiko mailegua Europatik Euskadiko Kutzari

Europako Inbertsio Bankuak eta Euskadiko Kutzak hitzarmen bat izenpetu dute. Horren arabera, Euskadiko Kutzak 60 milioi euroko mailegua jasoko du, MCC taldeko inbertsio egitasmoak aurrera eramateko.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroila. (Tel.: 943 71 23 91) **Disenatzailea:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90) **Disenatzailea:** Mendi Trubue-lo. **Asteburuetako berriemakileak:** Gontzi Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28).
©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo konzertatua.
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Javi S.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 30,**
• Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala
- Larunbata 1,**
• Gaeuz eta egunez: Morales, S. Andres
- Igandea 2,**
• Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Astelehena 3,**
• Gaeuz eta egunez: Español, Iturriotz
- Asteartea 4,**
• Gaeuz eta egunez: Korquera, Musakola
- Asteazkena 5,**
• Gaeuz eta egunez: Irizar, Erguin
- Osteguna 6,**
• Gaeuz eta egunez: Amezua, Zarugalde

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

- Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igalatorioa 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria

- Bergara 943 76 55 76

DYA

- Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak

- Arrasate (Larrialdiak) 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
• Fax zenbakia: 943 03 05 14
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramio (945) 943 45 51 16

Anbulantziak

- Gipuzkoako ambulanziazkiak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

- Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 088

Ertzaintza

- Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

- Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

Matxurak

- Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

- Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

- Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

- Monterron 943 77 01 05

Irratia

- Arrasate Irratia 943 79 58 77

GOGORATU NAHI DUDAN AUZOA

San Andres auzoaren jatorria 22 baserriren mui-
nean aurki dezakegu. Hori-
etako batzuk desagertu
egin dira, eta beren lurretan
kooperatibak eraiki dituzte.

Arrasatek izan duen lehen-
engo kirol kluba auzo hone-
tan kokatua zegoen, Etxaluz-
e baserriaren jabetza batean,
1913. urtetik 1916. urteko
bukaera aldea arte. Gaur egun
Errebuelta, Doctor Bañez eta
Arabako etorbidea kaleak dau-
den lekuan zegoen.

Ibaiaren "Errebuelta"
famatu herriaren igerileku
gisakoa zen, eta han elkartzen
ziren neska-mutilak igeri egi-
teko. Gero inguruko base-
rrietan sagarrak osten zituz-
ten.

Auzoan hiru baseliza zeu-
den: bata Muruko zegoen,
Olandixo baserriaren ingur-
uetan. Santa Kurtz edo Jesus
berpiztuari eskainitakoa zen,
eta "Amabimendixetakua"
izenarekin ere ezagutzen zen.
1769. urtean itxi eta eraitsi zen,
eta bere aztarnej probetxua ater-
a zieten. Irudia, adibidez, San
Josepera eraman zuten.

Beste bat San Andre-
si eskainitakoa zen. Baseliza
hoñetan meza eta prozesioa
egiten zen 1771an bota zuten,
eta haren lekuan izen bereko
baserria eraiki zuten, 1978an
desagertu zena.

Hirugarrena, Bedoñarako
lehengo bidean zegoena, Ama
Zuriaren ermita edo San Jose-
pekoa zen.

Maiatzean, San Josef egu-
nean, erromerian baselizar-
a joan eta han festa egiteko ohi-
tura zegoen. Ospakizun hau
Pablo Urangak jaso zuen mar-
golan eder batean. Margolan
hori San Telmo museoan dago,
eta "San Josepeko erromeria"
du izena.

Arrasaten iraun zuen ohi-
toretako bat, mende honen
erdialdea arte, hitz egiteko
zailtasunak zituzten haurrak
San Andreko irudiaren aurre-
ra eramatea zen. Irudia base-
lizaran zegoen. Hatzen artean
erroskila bat ezarri eta "Gure
aita" errezatuz, azkar batean
hizketan hasten zirela esaten
zen. Bistakoa zena haurrak
erroskila jaten zuela zen.

Gaur egun Foruen epa-
rantza dagoen tokian guru-
tzadura bat zegoen, landuta-
ko hareharrizko zutabe boro-
bil bat, burdinazko gurutzeta
zuen. Gaztelako Alfontso
VIII. ak (Navaskoak) hemen
zin egin zituen 1200. urtean
Gipuzkoako Foruak, eta Kapi-
tulazioak sinatu ziren. Horren
ondorioz, Gipuzkoa Nafarro-
arengatik banatu zen eta Gaz-
telako erregearekin aliatu.
Ekimen hori Diputazioko
eskaileretako lehiatilan irudi-
katua dago.

Gaur egun Gipuzkoako
Forun plaza dagoen lekutik
200 bat pausora burdinola bat
zegoen, eta joan den mende-
ko bukaera aldera irin lante-
gi bihurtu zen. Hemen zego-
en herri guztiari argindarra
eman ahal izateko dinamoa.

Denbora joan ahala eta
auzoan beren kale eta enpa-
rantzekin etxe multzoak erai-
ki ahala, kaleen izenek auzo-
aren historia gogora ekartzen
digute.

Arantxa Alonso

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25


Hauteskundeetako hautagaiak elebidunak izan beharko lirateke?

EHEk eta AEDk zinegotzi euskaldunak eskatu dituzte




Lorea Larrañaga
(31 urte)
Langilea

Bai. Oso garrantzitsua da. Euskal Herrian gaude eta euskara lehen hizkuntza izan beharko litzateke.



Josean Agirre
(34 urte)
Langilea

Bai, honela euskara dakitenek zein ez dakitenek ulertuko dute.



Pablo Lucena
(18 urte)
Langabea

Bai. Euskaldunek ere euren eskubidea daukate.



Ainhoa Segura
(27 urte)
Langilea

Gaur egun Arrasateko udal-letxe batean behar-beharrezkoa da bi hizkuntzak menperatzea.



Arantxa Aiestaran
(37 urte)
Langilea

Bai. Gaur egun Arrasaten edo inguruan beharrezkoa da. Jende gehiena euskalduna izatea kontuan hartu behar da.




Marta Hurtado
(26 urte)
Irakaslea

Bai, hemen bizi badira, euskara jakin beharko lukete edo behintzat ikasten saiatu, jendearen interesak defendatu behar dituzte eta.



Eneko Zabalo
(18 urte)
Ikaslea

Bai. Euskal Herrian garelako. Nahiago nuke euskalduna izatea bakarrik, baina legeak elebidunak izatea esaten du.



Harkaitz Rodriguez
(20 urte)
Ikaslea

Bai, alderdikide espainolak bakarrik dituzten alderdiak ez dira sartzen nire eskemetan. Euskal Herrian euskara ofiziala izan beharko litzateke.

JUBAR
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide Industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

GAV TXORI

Uribarri, 26
ARRASATE
Tel.: 943 79 20 51

Maiatzaren 1etik aurrera eskualdeketa
MENUAK ETA BOKATAK
Especialitatea: Bakailoa eta txuletak.

30 ostirala

■ ZINEA

Gato negro, gato blanco, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Cuatro Clavos eta *Ostias Mil* taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean, VIII urtemuga ospatzeko. Emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da.

■ JAM ARETOAN

Hamlet, *MDH* eta *Fumas Iskariote* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan, gaueko 22:00etan.

■ MUS TXAPELKETA


Alkartu-Txalaparta elkar-
teek (Alkartun) eta Irantsub-
-Udalpek (Irantsuben) XXI
Mus Txapelketako finalerdiak
jokatuko dituzte 21:30ean.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Anger talde portugaldar-
rak, *Vanity 4*, holandarrak eta
Not For Us madrildarrak kont-
zertua eskainiko dute Gazte-
txean, VIII urtemugaren
barruan. *Anger* eta *Vanity 4* tal-
deek Euskal Herrian eskaini-
ko duten kontzertu bakarra
izango da. Thrash-metal ema-
naldia gaueko 22:00etan hasi-
ko da.

■ ANTZERKIA AMAIAN

Sobradun taldeak "No hay
huevos" antzezlan eskainiko
du Amaia antzokian, gaueko
22:30ean. Sarrera 1.000 pta
kostako da.



3 astelehena

■ ZINEA

Mensaje en una botella,
Alai zineman, arratsaldeko
19:00etan eta 21:30ean.

■ CIM-EK 25 URTE

"Moda kontzeptu bat ala
nazioarteko merkatuan emai-
tza hobek lortzeko lanabesa?"
izenburuarekin enpresa jen-
deari zuzendutako hitzaldia
eskainiko dute CIMen, hiz-
kuntza eskolaren XXV urte-
mugaren ospakizunen barruan.
Saioa arratsaldeko 18:00etan
izango da.

■ EH-REN BILERA

Arrasateko Euskal Herri-
tarrok-ek batzar irekia egin-
go du udaletxeko osoko bil-
kura aretoan. Herritarren ekar-
penak eta iritziak jaso eta ezta-
baidatzeko eta zerrenden auka-
raketa egiteko asmoa dute
bileran. Ordua 19:00ak.

Horrezaz gain, udal hau-
teskundeetako egitarauari
ekarpenak egin nahi dizkio-
tenek orain dute aukera. Arra-
no bulegoan jaso dezakete
zirriborroa, goizez eta arra-
tsaldez.

■ MENDI ASTEA

Besaidek antolatuta, Men-
di Asteari hasiera emango
zaio. Joseba Egibar izango da
lehenengo gonbidatua "Udaz-
kena eta Petra" emanaldiare-
kin. Monterreren 19:00etan.

4 asteartea

■ ZINEA

Mensaje en una botella,
Alai zineman, arratsaldeko
19:00etan eta 22:00etan.

■ PATAGONIA
EZAGUTZEKO

Mendi astearren barruan,
Anttonek eta Gaizkak "*Bide
berria Patagoniako Paine
dorreetan*" emanaldia eskai-
niko dute, Monterreren,
19:00etan.

■ BORONDATEZKO
LANA

Nagusilan eta RSVP elkar-
teek hitzaldi sorta bat eratu
dute borondatezko lana eta
gizartearen parte hartzearen
inguruan, 16:00etan eta
18:30ean, Arrasateko udale-
txean.

1 larunbata

■ ZINEA

Mensaje en una botella,
Alai zineman, arratsaldeko
17:00etan, 19:30ean eta
22:00etan.

■ DYA-REN DIRU ESKEA

Deba Garaiko DYAk urte-
ko diru eskea egingo du egun
osoan zehar.

2 igandea

■ ZINEA

Mensaje en una botella,
Alai zineman, arratsaldeko
17:00etan, 19:30ean eta
22:00etan.

■ DYA-REN DIRU ESKEA

Deba Garaiko DYAk urte-
ko diru eskea egingo du egun
osoan zehar.

5 asteazkena

■ EVEREST

"Everest eta ingurugiroa"
saioa eskainiko dute Monte-
rrenen 19:00etan, Besaideren
mendi astearren barruan.

■ KONTZERTU
PEDAGOGIKOA

Arrasate Musikaleko Per-
kusio Taldeak kontzertu peda-
gogikoa eskainiko du Duran-
goko kontserbatorioan, arra-
tsaldeko 18:00etan.

6 osteguna

■ BORONDATEZKO LANA

Nagusilan eta RSVP elkar-teek hitzaldi sorta bat eratu dute borondatezko lana eta gizartearen parte hartzearen inguruan, 16:00etan eta 18:30ean, Arrasateko udal-texean.

■ MUNDUKO MENDIAK

"Annapurnatik Patago-niara eta Atlasetik Huayhuashera" bidaia eskainiko du JK Trojaola Tantalok, Monterronen 19:00etan.

■ ZINEA

Sexualitate zikloa antolatu du Gazte Sailak. Ostegunean Nosotros dos filma eskainiko da, Amaia antzokian, iluntzeko 21:30ean.

■ KIROLDEGIA ITXITA

Maiatzaren Lehenean kiroldergia itxita egongo da, jaieguna izateagatik.

■ REIKI IKASTAROA

Maiatzaren Lehenean eta bigarrean izango da Arrasateko Yoga elkarteak antolatatu duen reiki ikastaroa, goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Larunbatean eta igande-
an 10:00etatik 14:00etara.

■ YOGA IKASTAROA

Arrasate Yoga elkarteak antolatutako hastapen ikastaroa maiatzaren 3an hasiko da, 9a arte. Hiru egunean 09:45ean, 15:00etan eta 20:30ean izango da hasteko ordua, elkar-tearen egoitzan.

■ SASKIBALOI ENTRENATZAILE

Gipuzkoako saskibaloi Federakuntzak saskibaloi entrenatzaile titulua lortzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Musakolako kiroldegian izango da, uztailaren 1etik 15era bitartean. 16 urtetik gorakoei zuzendua dago eta 15.000 pta kostako da. Izen ematea ekainaren 8a baino lehen egin beharko da.

■ MENDI ASTEA

Maiatzaren 7an, ostirala, "Amadablan eta Cho-Oyu" emanaldia eskainiko du Yolanda Martinek. Larunbatean, mendi irteera antolatu dute bizikletan, Arrasate-Tellamendi-Kurtzeta-Asensio-Untzila eta Arrasate artean. Irteera goizeko 09:00etan izango da, Musakolako kiroldegitik. Hurrengo egunean eta Besaideren monumentuan, zuhaitz bat sartuko dute hildako lagunen oroimenez.

■ BIDAIA LOURDESERA

Osasun pastoralak bidaia antolatu du Lourdesera, maiatzaren 15erako. Autobusa 17:30ean aterako da Garibai kaletik. Izen ematea maiatzaren 10ean amaituko da Halcón Bidaiak agentzian. Jose Antonio Pagola bikarioa, bestalde, "Ebanjelioaren eta sufritzen dutenen aldeko elizaz" arituko da Aretxabaletako Azatzen. Bilkura goizeko 10:00etan hasiko da. Bazarra gelditzeko, deitu aurrez 943 79 16 68ra.

■ HERRI URRATS

Maiatzaren 9an egingo da Senperen Herri Urrats "Euskara hazi, euskaraz!" leloarekin. Debaguek autobusak

antolatu ditu hara joateko. Izen ematea 1.200 pta kostako da eta maiatzaren 6an amaituko da. Autobusak goizeko 08:00etan aterako dira Garibai kaletik. Bueltarako ordua 20:00ak izango da.

Herri Urratsek laguntzaileak behar dituela eta, Debaguek autobus bat antolatu du bezperatik antolakuntzan lan egin nahi dutenentzat. Interesatuak 943 77 12 28 edo 943 71 21 17ra dei dezakete.

■ EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN

HABEK antolatuta, abuztuan eta irailean Euskal Herriko familia euskaldunetan egonaldiak egin izango dituzte 18 eta 40 urte bitarteko pertsonak. Horretarako 8. urratseko euskara maila eduki beharko da. Izena emateko azken eguna maiatzaren 10a. Informazio gehiago Gazte Bulegoan jaso ahal izango duzue.

■ BRUCE SPRINGSTEEN

Jam aretoak autobusa antolatu du ekainaren 5ean, Zaragozan izango den kontzertura joateko.

Autobusak eta sarrerak 8.500 pta kostako dira. Tel.: 943 76 35 81.

Diego Valor Ile apaindegia

San Lorenzo, 2, behea Zubieta, 38, behea
(Gizonezkoak) (Binakoa eta
Tel: 943 76 58 08 estetika zerbitzua)
Tel: 943 76 37 70

BERGARA



King's Ile apaindegia

Zeureganatu
estilo berria!

Zarugalde, 23, behea
Tel: 943 79 84 88

ARRASATE



PRESTA ZAITEZ!

Orain udako eguzkirkako presta dezakezu zeure azala, solarium sistema puntakoenarekin: SUNCAB zutikako kabinak.

Beltzaran jartzeko sistema egokia eskaintzen dizugu:

- Guztiz higienikoa
- Lasterragoa
- Biziagoa
- Erosoagoa
- Bero gutxiago

Segurua. Higienikoa. Erosoa. Lasterra.



Aurpegi eman udari!



Urbarri, 12
Tel.: 943 77 00 67

BETI ONA
Gimnasioa

USTEAK USTE

Zirkulazio argiak bai ala ez?

Udalak bi kale argi, semaforo pare bat, ezarriko ditu Musakolan, Meneta taberna inguruan bat (SS-77 markatzen duen harriaren ondoan), eta Birekurtzen bestea. Horrela, bataren eta bestearen artean dauden berrehun metroetan hiru argi geratuko dira, hostalekoa ere hortxe baitago.

Istripu asko gertatu izan dira inguru horretan. Orain berrogei bat urte gu txikiak ginela ere horrela izaten zen, nahiz eta orduan oso ibilgailu gutxi ibili eta gaur eguneko ondoan askoz ere mantsoagoak izan. Kontua zen bidearen alde bietan jendea bizi zela eta denok batetik bestera ibiltzen ginela.

Semaforoak desgertzen ari diren honetan —zirkulazioa oztopatzen dute, kutsadura eragile dira, zarata eragiten dute...—, ez dakit erremedioa gaitza baino okerragoa ez ote den izango.

Espero dezagun ezetz. Ondo beteko dutela bere egitekoa eta musakolarrak lasaiago eta seguruago ibiliko garela. Hala bada, hala biz eta ez bada, ora pro nobis.

Joxe Aranzabal



Maiatzaren Lehena

* Maite Aristegi

Maiatzaren Lehena, langileen festa eta errei-bindikazio eguna. Eta ohituraz maiatzaren 15a ospatzen dugun nekazariei ere egun hau ez zaigu inondik ere arrotza. Geu ere langileak eta gizarte honen partaide baikara. Eta nola ez, beste esparruetako sindikatuekin darماغun elkarlanak, eta gizartean bizi den une itxaropentsuak aurtengo Maiatzaren Lehena elementu berriz jantzia dakarrelako.

Langabeziak badu, bai, soluzioa; lanaren banaketa egokiak guztientzako lana ziurta dezake. Horixe da 35 orduko lan astearen aldarrikapenaren muina: lana eta aberastasuna banatzea, gizarte zuzenagoa egiteko. Eta baserritarrontzat, 35 ordukoa bete ezinezko ametsa bada ere, aldarrikapen honekin bat gatoz, nekazaritzan ere lan orduak murriztu eta bizimodu duinagoa eramateko tresnak aldarrikatu eta prestatzen joan behar baitugu.

Horrez gain, une hone-

tako ardura nagusia, baserriko lanpostuei gutxienez eustea da, gazteak baserriratze-ko politika indartsuak bideratzea, baserria, egoki ordaindutako alternatiba bezala ikustea. Eta hori, aberastaren banaketatik dator, produzitzeko eskubideak eta baserrirako laguntzak zuzen banatetik, hau da, egungo nekazaritza politika bidegabea, laguntzak eta boterea esku gutxitan pilatu eta baserritarra kalera begira jartzen duena aldatzetik.

Horregatik izango gara Iruñean Maiatzaren Batean, sindikatu euskaldunek goizerako deitutako manifestaldian izan, herri bazkarian indarrak hartu eta arratsaldeko ekintza politikorekin aurre-

ra begirako mobilizazioei bidea irekitzeko. Izan ere, mugimendu sindikalak, herri honetako langileria, baserritar eta langile autonomoak, indar sozial eta politikoekin batera, oso garrantzitsuak izan dira egungo une politikora iristeko, baina oraindik bidea luzea da.


Urrats ugari egin behar-kot ditugu, demokrazian sakonduz Euskalerrian benetakoa bakea finkatzeko lan horretan guztiok izan behar baitugu partaide, baita gaur egun Lizarra-Garazin ez dauden sindikatuak ere.

Zoritxarrez, ELAk eta LABek langabezia eta bazterkeria sozialaren aurkako borrokan CCOO eta UGT integratzen saiatu badira ere, orain arte nahiago izan dute probetxuzkoagoa zaien bere bidearekin jarraitu. Eta herri honen bake nahiaren aurka estatuaren errepresioari erantzunez jarritako ekitaldietan ezikusiarrena egin dute.

Ez, aurtengo Maiatzaren Batak ere ez du lortuko indar sindikal guztiak biltzea. Eta hala ere, erakutsiko du aurrera goazela. Iruñean bilduko den jendetzaren sinbologiak argiro azalduko du berriz ere herri honek gero aske bat duela, eta etorkizun hori, gehiengoaren borondatea errespetatuz eta justizia sozialaren gainean baino ezin dela erai-ki.

* EHNE sindikatuko idazkari nagusia

“
Maiatzaren Batak ez ditu batuko sindikatu guztiak.
Halere erakutsiko du aurrera goazela.
”



**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferreries, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

astea bi hitzetan

■ Arrasatear gaztea hilda

Joan den larunbatean furgoneta batek Haritz Romero 14 urteko arrasatearra harrapatu zuen bizikletan zihola, San Vicente de la Sonsierra inguruan. Berehala Logroñoako San Millan ospitalera eraman bazuten ere, hilda iritsi zen.

Hileta elizkizunak astelehenean egin ziren, parrokian.

■ Trefasa Legutiora

Trefileria Arrasate SA, Trefasa, garai batean Nito izena zuen enpresa, pabilioi berri bat egiten hasi da Legution, Gojaingo industrialdean. Badirudi hemendik urte batzuetara Legutioko eta Uribarriko negozioek bat egingo dutela. Legution. Ondorioz, Uribarrikoa itxi egingo litzateke.

■ Zinegotzi elebidunak

Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldeak deituta, ostiral iluntzean kale bilkura egin zen herriko plazan. Datozen udal hauteskundeetarako zerrendetan hautagai elebidunak jartzea eskatu zieten alderdi politikoei. AED elkarteak ere bat egin zuen eskaera honekin. Honetaz gain, udalean euskararen erabilera urria salatu zuten eta azken urteotan aurrera barik atzera egin izana.

■ MU Donostian

Mondragon Unibertsitateak ekitaldi berezia antolatu zuen pasa den ostegunean. Izan ere, oraindik erdi jaioberria den unibertsitatea ezagutzera emateko, aurkezpen ekitaldi bat egin zuten Donostiako Maria Cristina

hotelean. Hantxe izan ziren Ignacio Lakunza errektorea, Jabier Retegi sailburu ohia eta hiru fakultateetako dekanook.

■ Larrañaga eta Altuna hautagai

Eusko Alkartasunak jakitera eman du Europarako hauteskundeetara EAJrekin batera aurkeztuko dituen hautagaien izenak. Tartean bi arrasatear daude: Jesus Larrañaga kooperatiba sortzailea eta Jose Antonio Altuna Txatillo, JMA enpresako jabea. Arrasaten, izen hauek joango dira: Amaia Larrañaga, J. Antonio Barri-ocanal, Jose M. Urizar Ametzu, Isabel Urrutia, Jasone Giraldo, Aritz Larrañaga, Joxemi Salaberri, Kontxi Etxebarria, Jabier Nafarrate eta Isabel Gallastegi.



EBAKUNTZA GELAK ITXITA OSPITALEAN

Zaharberritze lanak direla eta, pasa den ostiraletik hasita, Eskualde Ospitaleko ebakuntza gelak itxita egon dira eta horrelaxe segituko dute astelehena arte.

Egun horietan ospitaleko larrialdi zerbitzuek lanean segitu dute. Izan ere, euren eskutik gelditu da erabakitzea ebakuntza egin behar izatekotan non egin, kanpoko ospital batean edo hemen bertan.



“Lehen hemezortzi gauak mendian pasa eta gero, Iparraldera iritsi orduko gaizki nengoen: dena ematen duzu zerbaitetan eta, nahiz eta jakin egunen batean etorri behar zaizula, ustekabean etortzen zaizunean eta esku arteko gauza guztiak kolpez galtzen dituzunean, hori gogorra da; zeri heldu ez daukazula gelditzen zara. Askok esan didate ‘hamar urte egon zara zuloan gordeta’, bai hala da, baina nik hamar horiek nahiago ditut lehenengo hilabeteak baino, nahiz eta hamar horietan momentu txarrak pasa ditudan. (...) Lehen hemen arrotza nintzen eta Hegoalderako egarria nuen. Orain, Hegoaldean ere arrotza izango nintzatekeela ikusten dut. Egardia badut eta joateko gogoia ere bai. Baina, hemezortzi urte eta gero hango gazteak ez ditut ezagutzen, lekuak eta bideak asko aldatu dira... Joan bai, bertan gelditu ez dakit”.

XANTI IPARRAGIRRE

Gara

1999.4.27

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABAleta
Tel.: 943 79 08 07

LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

Itaca Zentru Mediku eta Estetikoa

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98

Erdiko kale. 79 19 37

I LEA

Ferreries. 943 79 87 62

Jaiotzak

- Carlos Antonio Gonzalez. Apirilaren 7an.
- Nagore Rodríguez Corral. Apirilaren 8an.
- Igor Urrea Sanchez. Apirilaren 9an.
- Joseba Garaioa de Nova. Apirilaren 10ean.
- Jone Perez Moreno. Apirilaren 15ean.
- Jokin de Sales Sanchez. Apirilaren 16an.
- Joseba Miren Ormaetxea Orobengoa. Apirilaren 20an.
- Unai Estrella Alonso. Apirilaren 25ean.
- Gaizka Iturrioz Arregi. Apirilaren 26an.

Ezkontzak

- Antonio Carmona Segovia eta Maria Isabel Moreno Martinez. Apirilaren 17an. Zibilez.
- David Gallego Navas eta Sofia Idoia Rincón Ercilla. Apirilaren 24an. Elizaz.

Heriotzak

- Daniel Bengoa Uriarte. 89 urte. Apirilaren 13an.
- Donato Elizondo Iñiguez. 92 urte. Apirilaren 13an.
- Jose Paunero Bejerano. 49 urte. Apirilaren 16an.
- Felisa Ibañez de Opakua. 90 urte. Apirilaren 19an.
- Pedro Zuazubizkar Larrañaga. 75 urte. Apirilaren 20an.
- Pilar Barcena Perez. 87 urte. Apirilaren 23an.
- Maria Martina Zabalo Jaurregi. 85 urte. Apirilaren 25ean.

Aldaketak MCCren zuzendaritzan

Mondragon Kooperatiba Korporazioak erabaki garrantzitsuak hartu zituen joan den astearen amaieran.

Alde batetik, sail bat sortu du, enpresa proiektu berriak bultzatzeko. Enpresen Sustapenerako eta Garapenerako Departamentua izango du izena sail horrek. Lehendik MCCn helburu horrekin zegoen unitatearen elementuak aprobetxatuko ditu, korporazioaren dibisioetan sor litezkeen enpresa proiektuak bultzatzeko eta aurrera ateratzeko.

Proiektu hau aspalditxo ari zen lantzen MCCren barruan.

KARGU ALDAKETAK

Horrekin batera, hainbat aldaketa egin dira MCCren zuzendaritzan.

Juan Mari Uzkudun, orain artean Automozio dibisioburua izan dena izango da sail berriaren arduraduna. Antonio Canceloren mendean egingo du lan, MCCren egoitzan.

Jose Maria Aldekoa MCCko lehendakariordea eta Osagaien dibisioburuak hartuko du Automozioaren ardura.

Aldaketa hauek Antonio Cancelo MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakariak proposatuta eta MCCko Batzorde Iraunkorrek onar-

tuta egin dira, ohi bezala.

Hala ere, bada beste aldaketa bat jende askoren ahotan dabilena. Horren arabera, Jose Luis Olasoko, orain arte Ekipamendu-Ondasunetako burua izan denak hartuko luke Osagaien dibisioko ardura, Aldekoa ordezkatzu.

Aldaketak ez dira hor bukatu, ordea. Automozio dibisioaren barruan Balentin Altube izango da Fagor Ederlaneko lehendakari berria, karguan Juan Jose Ansoategi ordezkatzu. Horrela erabaki zuten joan den larunbatean Fagor Ederlaneko Batzar Orokorrak.

Kargu berriak



Juan Mari Uzkudun
(54 urte)
Donostia

Enpresen Sustapenerako eta Garapenerako Departamentuaren ardura izango du. Automozio dibisioburu izan da. 1994an urteko enpresarioa izendatu zuten.



Jose Mari Aldekoa
(51 urte)
Ermua

Automozio dibisioburu berria. MCCko lehendakariordea da. Fagor Elektronikako kudeatzailea ere izan zen. Ingeniari teknikoa da.



Jose Luis Olasolo
(56 urte)
Markina-Etxebarria

Osagaien dibisioko arduraria hartuko du. Ekipamendu-Ondasunetako burua izan da orain arte. EPPn ikasi zuten Ingeniaritza Teknikoa.

Martxan dagoen
TABERNA
ALOKAGAI
Urribarrin

Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 81



Araba Etorbidea, 18
Tel.: 943 71 24 75

Elisabeth,
haurrentzako kirol jantzidendak

Kinolez beteriko jai zorientsuak opa dizkizu

A STORE

TERNUA

HEZI: hezkuntza errealitatera egokitzeke institutua

Hezkuntza Zientzien Institutua (HEZI) aurkeztu zuen joan den astelehenean Mondragon Unibertsitateak. Institutu berriaren helburuak hezkuntza proiektua sendotzea eta bere baloreak berrestea dira. Hezkuntza unibertsitarioa eta ez unibertsitarioa landuko ditu HEZIK.

Aurkezpen ekitaldia eskolako areto nagusian egin zen eta hantxe izan ziren Adrian Zelaia unibertsitateko lehendakaria, Marian Bilbatua HEZIKo arduraduna eta Maite Gartzia hezkuntza ez unibertsitarioaren arduraduna.

Egitasmo berri honen helburu nagusia, orohar, hezkuntzaren kalitatea hobetzea da. Bai unibertsitatean eta baita beharagoko mailetan ere. Hezkuntza gure errealitatera



Hezkuntzaren etengabeko hobekuntza bultzatuko du HEZIK.

egokitu nahi da, hain zuzen ere. Halaxe adierazi zuen Adrian Zelaiak.

Aurkezpen ekitaldiari amaiera emateko, Tenerifeko La Laguna unibertsitateko Pedro Hernandez katedradunak hitzaldi bat eskaini zien

aurkezpena bildutakoei.

Mondragon Unibertsitatea orain bi urte jaio zenetik, etengabe gorpuzten joan da, poliki-poliki bere izaera zehaztuz eta finkatuz. HEZI aurre-rapauso bat gehiago izango litzateke bide horretan.

SOS Kosovo

Egunotan Amaia Esparza, Mugarik Gabeko Medikuak elkarteko kidea Arrasaten izan dugu. Kosovotik etorri da eta hango egoera latzaren berri eman digu. MGM elkarte bost urte eta erditik hona dabil han lanean.

Kosovon 800.000 biztanle inguru daude beren bizilekuetatik kanpo egotziak. Guztira dauden 300.000 iheslarietatik, soilik 30.000 omen daude beraiantzat propio egindako guneetan. Gogoan izanda herrialde hura jasaten ari den txikizioa, Amaiak dei berezi bat egin nahi izan dio gizarteari, orohar. Izan ere, "Kosovokoa bezalako liskarrrak soilik komunikabideetan ateratzen direnean hartzen dira kontuan eta ezinbestekoa da jendea gogoraraztea etorkizunera begira ere laguntza handia beharko dutela kosovotarrek".

Hautesleen zerrendak ikusgai

Erroldako zerrendak udal txeko arkupetan daude ikusgai, datorren astelehena arte.

Ekainaren 13ko hauteskundeetan botoa emateko asmoa dutenek begiratu egin beharko lukete ea beren izea eta gainerako datuak ondo

agertzen diren, bozketa egunean disgustorik gerta ez dadin.

Izan ere, zerrenda horiek 1999ko ekainaren 13ko Udala, Batzar Nagusi eta Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeetan erabiliko dira.



HIES

EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotatuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



LANA JAI BIHURTZEN DENEAN

Kolorea, musika eta umorea nagusi dira Gaztetxearen zortzigarren urteurreneko ospakizun ekitaldietan. Igandean La Tirili antzerki taldea izan zen gaueko protagonista.

EGURALDI ONA, GIRO EZINHOBEA

Altamirakoek ez zuten motibo handirik herrira jaisteko. Hango giroa ikusita, normala. Izan ere, larunbatean auzoko jaiak ospatu zituzten, ezin hobeto.



GRONDO

Elektrizitatea


- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



AUPA, MARIJO!

Antzuola Herria ikerketa bekaren bigarren lana aurkeztuko da Antzuolan maiatzaren lehenean. Cesareo Gabarain apaiz eta musikagile hernaniarren biografia kontatzen du lanak, ARKoko kazetari eta orain idazle den Marijo Deograsiasek idatzi du. Langilea da benetan gure Marijo. Zorionak!



ERROMERIAK BERRESKURATUZ

Antzinako kantak, pasodobleak eta balsak jotzen ederki asko moldatzen direla erakutsi zuten joan den domekan Tapiak, Leturiak eta Iñaki Salvadorrek. Irakasle eta guzti, hurbildutako guztiak dantzan jarri zituzten.



GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerías, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

PUB HAIZEA



beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

Zilegizko beste osasun

Urte batzuetatik hona, medikuntza naturalak goraka egin du nabarmen. Honek badu bere arrazoia. Izan ere, duela gutxia arte era horretako medikuntza ez zegoen ondo ikusita, batez ere sendagile zenbaiten artean. Denborak, aldiz, erakutsi du medikuntza honetan erabiltzen diren bide eta teknika gehienak, kaltegarriak ez izateaz gain, onuragarriak ere badirela. Gauzak horrela, gero eta jende gehiagok jotzen du medikuntza naturalera.

Hala ere, gaia ezezagun samarra da. Zaila litzateke, gainera, dena erakutsi nahi izatea, ezinezkoa kasik. Hori dela eta, medikuntza naturalak erabiltzen dituen teknika nagusi batzuk hartu, Arrasaten erabiltzen direnak, noski, eta honaxe ekarri ditugu: yoga, masajea, fitoterapia eta medikuntza txinatarrak. Horretarako arlo horietan adituak direnekin berbetan izan gara.


YOGA

Jose Luis Armendia Arrasateko lehenengoetariko yogia da, Hogeita urte darama yoga

egiten. Yoga irakasle baten laguntzaile izan zen hiru bat urtez. Ondoren, 1981ean titulua lortu zuen Kanadan eta 1986an bigarren mailako titulua, Kanadan berriz ere. 1990. urtean maila biak errepikatu zituen, Indian.

Metodo honi buruzko lehen idatziak duela 5.000 urte inguru aurkitu ziren Indian. Barnera begira, burua eta gorputza ditu langai. Kanpora begira, aldiz, norberak sentitzen duena erakustea du xede, barruan gorde barik, kanpora ateratzea.

Yogaren azken helburua, berriz, aipatutako hiru elementuen arteko oreka da.



Gizakiaren elementuen arteko oreka bilatzen du yogak. J.L. Armendia.

Bost teknika erabiltzen ditu yogi batek:

- Ariketa fisikoak: dinamikoak (gorputza indartu eta erresistentzia emateko) edo estatikoak (malgutasuna emateko) izan daitezke.
- Arnasketa: arnasa lantzeko zortzi teknika erabili ahal daitezke. Arnasketa osoa deritzona ere lan daitezke (sabela, bularra eta lepahezurrak, danak batera erabiltzen).
- Lasaiketa: erabatekoa izateko, beharrezkoa da gorputzaren eta izpirituaren lasaitzea batera lortzea. Hauek lortzeko ordu erdiko eskola erabiltzen dira.
- Elikadura naturala eta orekatua: honekin kontuz ibili behar izaten da, zeren eta jende asko gehiegikeriatan erortzen da (belarjale zenbait, adibidez), azkenean bitamina falta izugarria eraginez.
- Pentsakera baikorra: daukagunarekin aurrera egiten ikasi beharra dago.

“Osasuna hitzak dioen moduan, pertsona osatua izatea da azken helburua”.

Yoga edonork egin dezake, baina lan apur bat eskatzen du eta batez ere jarraitasuna. “Aste osorako ez dugu behin jaten, egunero baizik. Yoga ere egunero egin behar ko litzateke”. Jende gehienak lasaitzeko erabiltzen du yoga. Baina, badaude bizkarreko minak, asmak eta digestio txarrek zaintzeko erabiltzen dutenak ere.

MASAJEA

Jose Luis Abuin 16 urte inguru dabil masajista profesional moduan lanean. Ikasketak Madrilan egin ostean, Bartzelonako kiromasaje eskolan izan zen. Gerora, makinatxo bat ikasketa egin ditu akupuntura, medikuntza naturala eta horrelakoak lantzen.

Jose Luisen esanetan, “gizakiak berezkoa du masajea. Kolpe bat hartzen dugunean, lehenendabizi igurtzi

lanbide mota bat

egiten dugu min hartu duen atala. Beraz, masajea ematen dugu". Masajeari buruzko lehenengo erreferentziak medikuntza txinatarrean aurki ditzakegu; baita greziarren artean ere. Izan ere, "badakigu Hipocratesek masajeak ematen zituela". Orain gero eta jende gehiagok erabiltzen du. Are gehiago, gero eta sendagile gehiagok agintzen dute masajeak ematea zenbait kasutan.

— 'Masajeak hiru erabilera nagusi ditu: batetik, gaixotasunei aurrea hartzeko balio du. Izan ere, eguneroko jardunean gorputzeko atal ugari gogortu egiten zaizkigu, gerora gaixotasunari bidea irekiz. Masajeak saihestu egiten ditu gogortasun horiek. Bestetik, terapeutikoa da. Egunerokotasunean batzen ditugun tentsio

fisiko eta psikologikoak askatu egiten ditu. "Eguneroko bizimoduan arazoren bat izanez gero, hori islatu egiten da gure osasunean, eta alderantziz. Masajeak hori guztia bere osotasunean aztertzen du. Azkenik, pertsonen artean komunikatzeko bide bat ere bada, hitzik bako komunikazioa".

Masajea hartzera doazenei beti esaten die Jose Luissek: "Bizimodu honetan ezinbesteko sufrimendua soilik pairatu beharko genuke eta ez ohi dugun moduan 'pasatuko zait' esan eta aurrera egin, azkenean gaitz hori kroniko bilakatuz.

— "Gainera, gorputza oso esker onekoa da eta apurtxo bat zainduz gero, berehala ikusten ditugu hobekuntza nabarmenak".

FITOTERAPIA

Landareak osasunbide moduan erabiltzen dituen jakintza hau ere aspaldikoa da. Jendea tribuetan bizi zeneko garaietara jo behar dugu. Naturarekin harreman zuzena zuten garai hartan, errazagoa zen ikustea landareak gizakiaren onerako erabil zitezkeela.

Marí Carmen Aranburu arrasatearrak hogeitau urte daralma Fitoterapia egiten. Berak dioskun moduan, "badaude guk ezagutzen ditugun erremedioak bostehun urte baino gehiago dutenak".


Landareak eta bere erabilerari buruzko ikasketa ugari ditu eginda honezkero, baina "ikasketa hauek ez daude homologatuta. Honek pentsarazten dio zenbait jenderi gu ez garela adituak lanbide honetan. Jendeak ez daki Osasun

Ministeritzaren ikuskapen oso gogorrik izaten ditugula. Dena dago oso kontrolatuta".

Hala ere, beti ez da ondo ikusia izan eta erdi isilean egin behar izan dute lan. Orain, berriz, gero eta hedatuago dago. "Badaude erremedio batzuk lehen onartezintzat hartzen zituztenak sendagileek. Bat-batean, balio dutela esaten dute. Kontuan hartu behar dugu mota honetako medikuntzak ez ditugula guk asmatu, aspaldi-aspalditik datozkigula. Zerbaitegatik izango da. Argi dago onuragarriak direla gizakiarentzat. Bestela ez lukete hainbeste gizaldi iraungo".

Mari Carmenek kontatu digunez, belardendetan ez da diagnostikorik egiten, "hona datorren jendea sendagile batekin egon da aurrena. Denetarikoa jendea dator, gainera. Izan ere, edonork erabil dezake fitoterapia. Hori bai, komenigarria da erabiltzen jakitea, gauza guztiak bezalatsu. Tratamentu batzuek erabilera berezia behar dute Hala ere, jeneralean landareak kalte gutxi egin diezaiokie gizakia-ri".

"Mota honetako medikuntzak ez ditugu guk asmatu, aspaldi-aspalditik datozkigu"



Ez dago adinik masaje on bat hartzeko.

MEDIKUNTZA TXINATARRA

Eugenio Ramosek hamabost urte pasatxo daramatza lanbide honetan. Berak ikasi zuenean ez zegoen eskolarik, baina orain bost urteko ikasketak egin behar dira espezialitate honetan sendagile izateko. Kontsulta ireki ahal izateko, Osasun Ministeritzak onartu behar izan zizkion ikasketak.

Medikuntza txinatarrari buruzko lehenengo idatziak duela 7.000 urtekoak dira. Beraz, jakintza zaharra dugu hau ere.

Medikuntza mota honetan, "garrantzitsuena gaixotasunen diagnostikoa egitea da, galderak eginez, ukimenaren bitartez, pultsoa zainduz, mingaina begiratzuz eta jateko ohiturak ikusiz. Ondoren, pertsona bakoitzarentzat tratamendu jakin bat ezartzen da. "Hauxe da, adibidez, medikuntza mota honen abantailetako bat. Medikuntza zientifikoan, askotan, sendabide



Fitoterapiako tratamendu batzuk jarraipen nahikotxo behar dute eta hori egitea asko kostatzen zaio jendeari .

bera ematen zaie pertsona askori. Medikuntza txinatarrak izadiaren behaketan oinarritzen da urte hauetan guztietan. Era berean, nork bere



Gizakia, inguratzen duen medioan berraztertzen laguntzen du medikuntza shonek

Bost espezialitate ditu medikuntza txinatarrak:

- **Akupuntura:** gorputzean barrena dabilen energia bidera daiteke, orratzen bidez. Akupunturak ezinbestekoa du gorputzaren fisiologia menderatzea.
- **Moxibus:** erreumak, lunbagoak eta antzeko gaixotasun "hotzak" berotasunaren bidez sendatzea. Artemisa izeneko landare bat erabiltzen da.
- **Fitoterapia txinatarrak.**
- **Masaje txinatarrak:** gorputzeko organoetan igarotzen den energiaren gaineko masajea da.
- **Qi Coung:** gorputza ukitu barik, gorputza inguratzen duen energia mugiarazi, eskuak erabiliz.

burua zaindu dezan bultzatzen saiatzen gara. Horrek ere gure alde jo beharko luke. Gainera, edozein gaixotasunen diagnostikoa egiteko balio du, baita oraingo SIDA eta antzekoena ere. Hala ere, arazoak izan ditugu maiz, bai legearekin eta baita jendearen sinesmen faltarekin ere". Medikuntza txinatarraren eman diren intrusismo kasuak salatu nahi izan ditu Eugeniok: "Zenbait jende horretan aritu izan da, bat ere prestakuntzarik barik eta horrek sekulako kalteak eragin ditu bai gaixoengan eta bai-

ta sendagileengan ere. Legea argia eta garbia balitz, ez litzateke horrelakorik gertatuko".

Eugenio argi du medikuntza naturala medikuntza zientifikoaren osagarria izan beharko litzatekeela eta amaitu egin beharko litzatekeela oraingo ikamikekin. Izan ere, helburua osasuna zaintzea izanik, horretarako dauden bide guztiak erabili beharko litzateke eta ez bakarrena mugatu".

Ubane Madera

GT Sanan: gazteak bideratzen

San Andres auzora jo dugu berriz ere gure atal honetan. Hango jaiak dira eta hori aprobetxatuz, auzoko gazte jendearen bilgunera jo dugu: G.T. Sanan-era. Izan ere, lau urtetik hona, 12-17 urtera arteko arrasatear gazteek leku berezi bat dute herrian: Gazte Txokoak.

1994. urtean ireki ziren lehenengoak Txatxilipurdi eta udalaren arteko elkarlaren ondorioz. Orain, guztira hiru daude, San Andresen, Musakolan eta Uribarrin.

Arrakasta majoarekin, gainera. Asmoa, adin tarte horretako gazteek bilgune bat izatea, euren aisialdirako proposamenak bideratzen erakustea eta laguntzea eta auzoetan euskararen erabilera bultzatzea.

San Andreseko Gazte Txokoa, Musakolakoarekin batera, irekitzen lehenengoa izan zen, 1994ko irailean, hain zuzen ere. Orduan Errukane Aperribaik hartu zituen toki hori bizkortzeko lanak bere gain. Ondoren Ixone Fernandez de Arroiabe ibili zen eta orain Sonia Perez eibartarra dabil jardun horretan. Errukane eta Sonia izan dira txoko honen berri eman dituztenak.

Tokia egunean hiru orduz egoten da zabalik eta edonon sar daiteke.

Zaila da erabiltzaile kopurua kontrolatzea, baina zenbatekoren bat ematekotan, egunean batz bestea 30 bat pertsonak erabiltzen dute Gazte Txokoa. Dena dela, guztira, 100 bat erabiltzaile

ditugula kalkulatu dugu”.

AUTOANTOLAKETA

Toki hauen helburua gazteak pertsona aktibo izan daitezten lortzea da, dauden tokian egonda ere: norberaren auzoan, eskoletan, herriko elkarteetan... Jeneralean hiru urtez egoten dira Gazte Txokoetan.

Errukanek kontatzen digun moduan, “guk hasieran geneukan asmotik errealitate zulo handia dago. Uste baino denbora nahikotxo gehiago behar da gazteei autoantolaketa egiten irakasteko.

Adibidez, kontzertu bat antolatzea nahi badute, lehenengo urtean zelan egiten den azaldu eta lanaren zati bat egiten uzten zaie. Bigarren urtean, begiraleak lan gutxiago egiten du eta, azkenik, hirugarren urtean, gazteek egiten dute guztia, begiraleok soilik gainbegirada egiten diogu”.

PAZIENTZIA ETA SEGURTASUNA

Begirale bakarrak egiten du lan Gazte Txoko bakoitzean.

Arestian aipatu moduan, orain Sonia Perez eibartarra dabil San Andresen: “pazientzia ugari behar da eta baita lanaren etenik bariko jarrai-

pena. Gogo handiz hartu beharreko lan mota da.

“Izan ere, gazteek zuzen konfiantza izan behar dute eta horretarako beharrezkoa da lanean hasi aurretik gure arteko harremanak lantzea. Segurtasuna eskaini behar zaie, bestela akabo; lehenengo eman eta gero hartu. Hori bai, azkenean gazteak zerbaitetan dabiltzala ikusteak izugarriko poztasuna ematen du. Hemendik pasatu diren batzuk Gaztetxean dabilta, edo bizi diren auzoetan futbol txapeleketak antolatzen. Musika talde nahikotxo sortu dituzte hemendik pasatutako gazteek, Txatxilipurdirentzat begiraleak ere jaio dira... Honelakoak ikustean konfiantza zara zure lanak merezi duela”.

MATERIALA

Begiraleaz gain, gazteek hainbat material dute eskura euren aisialdia betetzeko. Beste batzuen artean, mahai-ko tenisa, futbolina, kartak eta eskulanetarako materiala izaten dituzte eskuragai.

Honetaz gain, musika aparailua, aldizkariaren txokoa eta gazteek Gazte Zerbizutik hamabostero interresgarria izan daitekeen informazioa ere ekartzen dute.



Hauetxek dira lehen eta azken eragileak: Errukane eta Sonia.

**Txitxinpe**
Berezitasunak
Kazualatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA
**APAINKETA**
Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA
Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20


BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABAETA



Araba etorbidea, 3
TEL.: 943 79 11 75 • 79 11 83



Bañez dokorea, 10 • Tel.: 943 79 28 21
AZPILIKUETA



GIZON, EMAKUME ETA
HAURRENTZAKO JANTZIDENDA
Bañez dokorea, 1 • Tel.: 943 79 63 85

BAL-BAL

- Moda •
- Lurrindegia •
- Haur jai berriak •
- Opariak •

Bañez dokorea, 15
Tel.: 943 79 06 37

OINETAKO KONPONKETAK

RAOS

Mota guztietako
giltzen kopiak



Bañez Dokorea, 6 behea
Tel.: 943 79 74 87 • San Andres



Foruen kafetegia

Foruen plaza, 2
Tel.: 943 79 06 16
20500 ARRASATE

Itxaso
taberna

Araba etorbidea, 14
Tel.: 943 79 57 10
ARRASATE

IZASKUN
ARRAINDEGIA



Araba pasealekua, 3 Bañez Dokorea, 13
Tel.: 943 79 19 86 Tel.: 943 79 15 10

MODAK
Ritelu

- Gizon, emakume eta gazteentzako arropa
- Lentzeria

Foruen plaza, 3 • Tel.: 943 79 29 99

IRU Zangitu

MARGOAK
ALFONBRAK

Araba Etorbidea, 3
Eskatu pabeloia
Tel. 943 79 11 71

BLANCA
TEXTIL HOGAR

Zure etxea barrutik
jazten espezialistak

Maisu Guridi, 3
Tel.: 943 79 15 85

Urretxu
taberna

Maisu Guridi, 1
Tel.: 943 79 15 93
ARRASATE

Jose Antonio
Izagirre
HARATEGIA
URDAITEGIA

Kurtzetxiki, 2
Tel.: 943 79 59 86



MURU



AUTO KONPONKETAK

2. solairua laster zabalik
- Motorren salmenta eta konponketa
 - Honda zerbitzua

Araba Etorbidea, 3
Tel.: 943 79 27 16

San And
gure partetik, ja

LINDE
whiskeria

Garro Jenerala, 3 behea
Tel.: 943 79 14 49

IRIZTU
A
B
E
R
N
A



Araba etorbidea, 18

LIZARRALDE
KIROLAK



Bizikleten salmenta eta konponketa

Oñati Arrasate
Olakua, 16 Foruen plaza, 1-2
Tel.: 943 78 29 86 Tel.: 943 79 91 47

IMMOBILIARIA
E KOS



Bañez Etorbidea, 16
Tel.: 943 79 19 88

res Jaiak

Jai zoriontsuak

MESÓN MANOLO



- Pintxo aukera ugari
- Eguneko menuak kartara

Bañez doktorea, 3
Tel.: 943 79 22 40

ONTZI
DENDA



- Lore natural eta artifizialez egindako konposizioa
- Opariak
- Sukaldeko tresneria
- Bambua

Kurtze txiki, 2 behea
Tel.: 943 79 73 90

RUIZ
LURRINDEGIA
OPARIAK

Bañez doktorea, 4
Tel.: 943 79 19 94
Tel. partikularra: 943 77 05 74

Tximeleta
Gozokidenda

Bañez doktorea, 6
Tel.: 943 79 49 82

Muruamendiaraz
GOZOTEGIA

Leintzibar, 4
Tel.: 943 79 23 19

KURRUXKO

Okindegia
Urdaitegia
Gozotegia
Bakailaoa

Bañez doktorea, 12
Tel.: 943 79 22 57

LIZARRA
TABERNA

San Andres auzoa
Tel.: 943 79 72 35
ARRASATE



Rita
FRUITADENDA

Errebuelta, 10

Aramaio
okindegia

Croissant eta opil egin berriak.
Jai zoriontsuak eta on egin!
Maisu Guridi, 3 Tel.: 943 79 06 46

AKADEMIA
BASTIDA
INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1º
Arrasate
Tel.: 79 35 33*-79 32 16
Fax: 79 06 28
e-mail: bastida@tsai.es

URMAY
CROISSANTEGIA

Araba Etorbidea, 4
Tel.: 943 77 14 16

Euskadiko Kutzari 60 milioi euroko mailegua

Europako Inbertsio Bankuak (EIB) eta Euskadiko Kutzak hitzarmen bat izenpetu dute. Horren arabera, Euskadiko Kutzak 9.984 milioi pezetako mailegua jasoko du, MCC taldeko inbertsio egitasmoak aurrera eramateko.

MCCk honako egitasmo hauek eraman ahal izango ditu aurrera:

- Autogintza osagaiak egiten dituen Fagor Ederlanen produkzio zentruak berritu.
- Banaketari dagokionez, Eroskiren hipermerkatu berriak ireki eta bes-



telako egitasmo txikiak egin.

MCCren inbertsio programa betez gero, kooperatiba talde horrek 5.500 lanpostu berri sortuko ditu bi urtean.

Mailegua lortzeko hitzarmena sinatu eta gero,

Luis Marti EIBko lehendakariordeak adierazpen batzuk egin zituen, esanez kooperatiben inbertsio politika bat datorrela EIBren lan ildoarekin, gerora enplegua, hazkundea eta eorkizuneko garrantzia sortzen dituelako.

Europako Inbertsio Bankua 1958an sortu zen Europako kideen arteko bategitea, garapen ekonomiko orekatua eta partekatutasun ekonomiko eta soziala bultzatu eta bermatzeko. Europako Batauneko estatu kideak dira EIBren jabeak.

Euroa

Badago ezer haurrei begira pentsaturik?

Bai. Haurrak oso kontuan hartuko dira, euroa ezagutarazteko orduan. Adituek garrantzi handia ematen diote populazioaren atal honi, izan ere, eskarmentuak erakusten duenez, sarri askotan haurrak eta gazteak izaten baitira bai gurasoei eta baita aiton-amonei ere gehien laguntzen dietenak aldaketa zailak gertatzen direnean.

Euro baten balioa

166,386 pta

**Heriotza
Asegurua**

Bidaian laguntza

Munduko edozein lekutatik, garraioa barne.

Heriotzak

Zerbitzurik onenak, preziorik onenetan

Aseguru honen jabe zara?

Ez dio axola, zatoz eta hurbil zaitez geure bulegora.



MAPFRE

Garibai Etorbidea, 16
Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22

Arrasate Pasealekua, 37
Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04





SAIOA GIMNASIOA

Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 943 79 97 31

Kirolarengatik eta kirolarentzat



*Orain solariuma eta
estetika zerbitzua
izango dituzu*



Modelo berriena

- Muskulazioa • Masajea • Estetika zerbitzua • Mantenitze soinketa •**
Aerobic • Sauna • Squash • Solariuma • Karate
- Goizez eta arratsaldez
 - Haurrentzat eta helduentzat
 - Haurrentzat eta helduentzat



Baina ze demontre!

Astero zerbañt. Epaillea ez bada, aurkarria da edo bestela... Kontua da protesta egiteko beñ izaten dela arrazoiren bat. Begira bestela Xhasss Ugarteko jokalarriak duen hasarrea!

Laburrak

■ TALDE BAT ETA HIRU JOKALARI GUTXIAGO

Jardunaldi honetan biktima ugari egon dira Zaldibarko txapelketan. Lehenengoa Fraguél Gol taldea izan da. Ez zen aurkeztu bere konpromisora eta kalera bota dute.

Hurrengoak hiru jokalarri izan dira. Sailkapeneko egoerak eraginda urduri nonbait, euren norgehiagoketan ezin nerbioei eutsi eta arbitroarekin sartu ziren. Eta hori ezin

da egin Zaldibarko txapelketan. Ondorioz, Xhasss Ugarteko Manolo, Garaje Oscar taldeko "Piku" eta Kamasutrako "Kanario" bi partidako zigorra jaso dute. Hiru jokalarri hauentzat bosgarren jardunaldia txapelketako azken partida izan daiteke, beti ere euren taldeak ez badira hirugarren aldirako sailkatzen. Izan ere, bi jardunaldi baino ez dira gelditzen bigarren aldia amaitzeko.

■ HIRUGARREN ALDIRA

Jadanik sei taldek lortu dute hirugarren aldirako txartela. A taldean Txantxiku Kirolak eta Branka Taberna dira aukeratuak. B taldean Aldibi pasako da eta Potroak taldeak hanka erdi dauka hirugarren aldiran. D taldean bestalde, Lontxo taberna eta AC Surkos ditugu eta E taldean, azkenik EPEH. Azken kasu honetan sailkapenean bigarren den arren, hurrengo partida kalean dago-

en Ke Oxtias taldearen aurka duenez, garaipena ziurtatua dauka eta ondorioz sailkapena ere bai.

■ SAILKATZEKO AUKERA BARIK

Nahiz eta matematikoki aukerak izan, A taldeko Aita Menni 2010 eta Leya taldeak agur esan diote aurtengo txapelketari. B taldean DKB jausi da. Beste bi taldetan aukerak oraindik irekita daude.

Arrasateko Euskal Herritarrok-en Asanblada Irekia

Gaiak:

1. Udal Hauteskundeetarako osatutako Udal Programaren zirriborroaren eztabaida eta ekarpenak jaso.
2. Institutio ezberdinetarako (Udal Hauteskundeak, Batzar Nagusiak eta Europako Legebiltzarra) zerrenden aukeraketa.

Oharra: Udal Programaren zirriborroa Irati Tabernan daukazue, aurretik aztertu nahi baldin baduzue.

Eguna: Maiatzak 3, astelehena
Ordua: 19:00etan
Lekua: Udaletxeko Pleno Aretoan



Arrasateko Euskal Herritarrok



ESKER ONA

1999ko apirilaren 20an hil zen

Pedro Zuazubiskar Larrañaga

Bere alargunak eta seme-alabek bihotzez eskertzen dute jasotako doluminak, eta hileta elizkizunetara agertu izana.

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Txantxiku Kirolak	5	4	1	0	35	13	9
Branka Taberna	5	3	2	0	28	20	8
Dribling	5	3	0	2	16	17	6
Jotakabau	5	1	3	1	14	15	5
Komando Alpagat	5	1	2	2	19	24	4
Irati STS	5	1	2	2	18	18	4
Aita Menni 2010	5	0	2	3	16	27	2
Leya	5	1	0	4	17	29	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Aldibi	5	4	1	0	33	16	9
Potroak	5	3	2	0	29	20	8
You Know	5	3	0	2	25	16	6
Garaje Oskar	5	3	0	2	19	22	6
KKJauri	5	2	0	3	28	36	4
Koka Juniors	5	2	0	3	15	21	4
DKB	5	0	2	3	17	27	2
Fragel Gol	5	0	1	4	10	18	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Lontxo Taberna	5	4	1	0	37	18	9
AC Surkos	5	4	1	0	38	20	9
Diego Antonio	5	2	1	2	27	26	5
Pepelus	5	2	1	2	18	20	5
Xhasss Ugarte	5	2	0	3	24	26	4
AT Celaya	5	2	0	3	22	31	4
Aurrera Bolie	5	0	2	3	18	28	2
Kamasutra	5	1	0	4	17	32	2

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	5	4	0	1	26	15	8
EPEH	5	4	0	1	31	20	8
Naranja Mecanica	5	4	0	1	37	19	8
Totem	5	2	1	2	17	25	5
Sokoakoak	5	2	1	2	16	16	5
Insert Coin	5	1	1	3	10	20	3
Saukelu Scream	5	1	1	3	10	21	3
Ke Oxtias	5	0	0	5	4	15	0



Emaitzak

A taldea
 Txantxiku Kirolak 4 - Jotakabau 1
 Aita Menni 2010 3 - Branka 6
 Irati STS 1 - Dribling 3
 Leya 4 - Komando Alpagat 3

B taldea
 You Know 3 - Garaje Oscar 2
 DKB 3 - Aldibi 7
 Potroak 9 - KKJauri 8
 Koka Juniors 1 - Fraguel Gol 0

D taldea
 AC Surkos 8 - Aurrera Bolie 2
 Diego Antonio 6 - Kamasutra 5
 Lontxo Tab. 7 - Xhasss Ugarte 5
 Pepelus 1 - AT Celaya 2

E taldea
 Orlando Piratas 3 - Totem 2
 Insert Coin 0 - Saukelu Scream 2
 Naranja Mecanica 4 - EPEH 8
 Sokoakoak 1 - Ke Oxtia 0

Partida interesgarriak

Larunbatean:

11:00 Irati STS - Leya
 12:00 AC Surkos - Diego Antonio
 16:00 Lontxo Taberna - Pepelus

18:00 Orlando Piratas - Insert Coin

Igandean:

12:00 Naranja Mecanica - Sokoakoak

ARRASATE KIROLAK

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

IV Nesken Futbito Txapelketa

Joan den larunbatean hasi zen IV Nesken Futbito Txapelketa. Guztira hamar talde arituko dira lehian AEDko Gazterixiak antolatutako txapeleta honetan.

Partidak San Viator eta Ferixalekuan jokatuko dira larunbatero. Finala San Juanetan izango da eta guk astero eman-guztira dizuegu emaitzen berri.

Emaitzak

Ieup 8 - Gora gu 1
 Nuze 2 - Skarlets 2
 Porrusalda F. 6 - @z.kom 1
 Izen Bakuak 4 - Pilpil Efektua 3

*Txanpi 1 eta Txanpi 2 taldeen arteko partida atzeratu egin da.

Sailkapen orokorra

Hurrengo partidak

Maiatzak 1, larunbata

San Viator Txikin
 16:00 Porrusalda Forever - Ieup
 17:00 Pilpil efektua - Skarlets
 18:00 Izen bakuak - Gora gu

Ferixalekuan

16:00 Txanpi 1 - Txanpi 2
 17:00 Txanpi 2 - @z.kom

1.- Ieup	2
2.- Porrusalda Forever	2
3.- Izen Bakuak	2
4.- Nuze	1
5.- Skarlets	1
6.- Pilpil Efektua	0
7.- @z.kom	0
8.- Gora gu	0
9.- Txanpi 1	-
10.- Txanpi 2	-

Hurrengo partidak

2. aldia
 6. jardunaldia

Maiatzak 1, larunbata Zaldibar

09:50 Komando Alpagat - Dribling
 11:00 Irati STS - Leya
 12:00 AC Surkos - Diego Antonio
 13:00 Jotakabau - Saukelu Scream
 14:00 AT Celaya - Xhasss Ugarte
 15:00 Txantxiku Kirolak - Aita Menni 2010
 16:00 Lontxo Taberna - Pepelus
 17:00 Potroak - Koka Juniors
 18:00 Orlando Piratas
 19:00 Jotabakau - Branka Taberna

Maiatzak 2, igandea Zaldibar

09:50 You Know - DKB
 11:00 Garaje Oscar - Aldibi
 12:00 Naranja Mecanica - Sokoakoak
 13:00 Aurrera Bolie - Kamasutra

Atsedena: B taldea: KKJauri. E taldea: EPEH

Deba Arroko haur mailako azpitzapelduna

BEÑAT DOMINGUEZ

“Irabaztera joan ginen, nabiz eta zaila zela jakin”

— Joan den larunbatean azpitzapeldun gelditu zinen Uribarrenekin batera Eibarko Astelenan. Gustura?

— Irabaztera joan ginen, nahiz eta zaila zela genekien. Iaz ere, Soraluzeren aurka galdu genuen. Uribarren urduri jarri zen eta horrek ez zigun lagundu.

— Gustatu zitzaizun Astelenan aritzea?

— Telebistan handia ikusten da, baina ez da horrenbesterako.

— Orain gazte mailan ari zarete Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketan. Maila handiagoa egongo da ezta?

— Debaren aurka irabazi egin genuen, baina kontuan izan behar da maila handiko herriak daudela. Donostian, esaterako, oso pilotari onak ari dira.

— Zein da zure pilotari gustukoena?

— Ez dut faboritorik, baina Titinen jokoak gustatzen zait. Bere gantxoak atsegin ditut.

— Irabazi duzu beste txapelketarik?


— Herrian, bai. Santo Tomasetakoa, Erguinekoa eta San Andresekoak, esaterako. Gasteizen ere bai. Baina gehienetan, final erdietan kalera.

— Atzelari bezala jokatu duzu. Aurrelari izatea gustuko ez duzulako izan da?

— Nik nahiago dut aurrean jokatu, baina Uribarrenekin atzean jokatzen dut. Eta eraman egiten dut pilota, baina ez daukat horrenbesteko indarrik.

— Indarrik ez duzula?

— Beno, bai, baina hogeita bira jokatzeke ez.



PILOTA Azpitzapeldun




Uribarren eta Dominguez haur mailako pilotariak azpitzapeldun gelditu ziren Deba Arroko eskuz binakako txapelketan, larunbatean.

Eibarko Astelena pilotalekuan jokatu zuten plaentxiarren aurka eta 13 - 22 galdu zuten.

Igandean Gipuzkoako herri arteko pilota txapelketa hasi zuten herriko pilotariak. 2 eta 1 irabazi zuten mondragoetarrek Debaren aurka. Iñigo Jimenez eta Jon Dominguezek, haur mailan, 14 eta 18 galdu zuten. Gazte mailan Egoitz Uribarren eta Beñat Dominguezek 22 eta 8 irabazi zuten. Seniorretan, berriz, Iker Zugasti eta Jon Zuazubiskarrek, 22 eta 3 irabazi zieten debatarrei.

Itzuliko partidak gaur iluntzean, ostiralean, jokatuko dituzte, Itziarko pilotalekuan.

TXIRRINDULARITZA Infantilak onenak



Arrasate Kirolak taldeko infantilak berriz igo ziren podiunera. Bergaran aritu ziren eta Iberdrola taldeko Daniel Maestrok irabazi zuen arren, Mikel Lasaga bigarren izan zen eta Eddy Perez hirugarren. Aste honetan Azpeitian arituko dira.

JMA taldeko lehen urteko haur mailakoak Debara joango dira larunbatean. Bigarren urtekoak, berriz, igandean Bergarara. Fagor taldeko gazteak igandean Segurara joango dira.

Born Jay taldeko afizionatuek ez zuten lan ona egin Arabako XV itzulian. Itzulia Olarra taldeko Gorka Arrizabalaga eskuratu zuen eta Born Jay-

koak denboraz kanpo helmugaratu ziren azkenengo egunean, maila bereziko Herrerako mendatea tarteko.

David Sojok lasterketa utzi behar izan zuen bigarren etapian eta baimena lortu zuen igandean Lazkaon aritzeko. Hamahirugarrena izan zen helmugan eta Jon del Rio, bederatzigarrena. Larunbatean Legazpiko klasikoa dute jokoan eta Lizarran Lehendakari Sariko beste lasterketa bat izango dute. Igandean, Azpeitian Urrakiko igoera jokatuko dute.


ERRUGBIA Gazteek galdu



Eibarko taldearen aurka aritu ziren gazte mailako errugbilariak larunbatean. Eibartarrak 12 jokalarirekin zelairatu ziren, baina ezin izan zuten mondragoetarrek garaipena eskuratu. Azkenean, ordea, 21 eta 71 irabazi zuten Eibarrek. Aste honetan Donostiako Atletico de San Sebastian taldearen aurka arituko dira, Bera-Bera errugbi zelain, Maiatzaren Lehenean.

Egun berean, baina 17:00ean eta Garagartzan, talde nagusiko jokalariek Josu Ezkurdia ezkontzen dela eta, partida jokatuko dute.

ESKUBALOIA Garaipena derbian



Garaipen estua baina garaipena azken finean, haur mailako eskubalo taldeak Aloñamendiren aurka lortu zuena larunbatean. 21 eta 20 irabazi zuten falta jaurtiketa bati esker eta denboraz kanpo, gainera. Larunbatean Almenen aurka arituko dira han eta igandean, Almenen bisita izango dute, Iturripen 12:00etan.

Azkenengo norgehiagoka larunbatean

Iturripeko denboraldiko azken partida izan zen joan den larunbatekoa Kenci-Arrasate senior mailako saskibalo taldearentzat. Eta partida eskasa izan zen arren, garaipena lortu zuen taldeak sailkapeneko azken lekuan dagoen Oriokoren aurka.

Hasieratik aurreratu ziren arrasatearrak. Bi taldeak erabat lasaiturik atera ziren eta mondragoetarrek hirukoetan oinarritu zituzten euren saskiratzeak. Bigarren zatian oriotarrak 2 eta 3ko defentsan antolatuta ziren eta markagailuko tartea gutxitzea lortu zuten. Jokoa eskasa izan zen oso eta epaileek, gainera, askotan gelditu zuten jokoa. Bigarren zatiko 12. minutuan Mallabiarri teknika adierazi zioten.

ERREPASOA

Kenci-Arrasate taldeak 2. mailako igoera fasean sartzea lor-



Larunbatean amaituko du denboraldia Kenci-Arrasatek.

tu zuen Iturripen irabazitako partidei esker. 14 partidatetik bi baino ez dituzte galdu etxean. Hori dela eta, ezin zuten denboraldi honetan Iturripen jokatzeko zuten azkena galdu. Azken emaitza 80 eta 62 izan zen. Gamarrak 17 tantu saskiratzea lortu zuen eta Gorostidik, berriz, 20.

DENBORALDI AMAIERA

Aste honetan jokatuko dute denboraldiko azken norgehiagoka. Leioan arituko da Danel Aiastuik eta Zesar Azkaratek entrenatzen duten taldea. Leioarrak laugarrenak dira sailkapenean eta mondragoetarrek zazpigarrenak, baina bi taldeak puntuka berdinduta daude.

Neskak eta mutilak, biak gaizki

Nesken futbol taldeak igandean jokatu zuten denboraldi honetan etxean jokatzeko gelditzen zitzaion azken norgehiagoka. Ez zuten zortirik izan Esti Loitiren neskek, Nafarroako Corellaren aurka.

Gaizki hasi ziren hasieratik. Kakunek min hartu zuen lehen minutuetan eta talde nafarrak lehen zatian lortu zuen partidako gol bakarra. Bigarren zatian arrasatearrak jokalaritza gutxiagorekin gelditu ziren. Azkenean 0 eta 1 markagailuan.

Aste honetan denboraldiko azken neurketa jokatu du, Tuterako La Amistad taldearen aurka.

LEHEN MAILAKO ERREGIONALERA?

Derrigorrez irabazi beharra zuten preferente mailako Mondra taldekoek, baina aurreko guztietan bezalatsu, galdu egin zuten igandean Anaitasunaren aurka. Golak ikusi ahal izan ziren Atxabalpen. Guztira bost. Baina etxeok bi bakarrik. Mondrak azken aurreko lekua galdu du. Orain azkena da sailkapenean. Jadanik aukera gutxi dituzte Letonarenak mailari eusteko. Aste honetan, Rotetaren aurka arituko dira. Roteta ere ez dago bat ere ondo sailkapenean eta garaipen eskuargarria izan daiteke Mondrakoenentzat.

Telegidatuen Txapelketa

Auto Telegidatuen VI Txapelketa jokatu da maiztaren lehenean San Andresko Gudariaren plazan, 11:00etan. Neurriak 1/7, 1/8 eta 1/10 izan beharko dira. Autoak gasolinazkoak eta elektrikoak izan daitezke.



Gipuzkoako taldekako txapelketa

Arrasate Kirolak Atletiko taldea laugarren gelditu zen Gipuzkoako taldekako txapelketan, Txindoki taldearekin puntuka berdinduta. Guztira bederatzita talde aritu ziren, Eibar, Errenteria eta Tolosa kanpoan gelditu ziren eta. Atletiko taldeak 78 puntu batu zituen.

21 probatan aritu ziren Arrasateko kirolari gazte eta beterranoak.

KIROLARIEK LORTUTAKO EMAITZAK

- U. Sarabia**
2.200 m.tan.
- A. Urizar**
2.mailu jaurtiketan.
- J. Perez**
2.pertika jauzian.
- A. Azkarraga**
2.pisu jaurtiketan.
- Avila-Sarabia-Diosdado-Apraiz**
2.4x100tan.
- F. Sanchez**
3.800 m.tan.
- M. Uribesalgo**
3.luzera jauzian.
- M. Iturbe**
3.disco jaurtiketan.
- J. Mentxaka**
4.10.000 m.tan.
- JC Martin**
4.400 m. hesietan.

Bestalde Bilbon egin zen maratoi erdian Zesar Diez laugarren izan zen, beterranoetan, 1h., 20 minutu eta 48 segundurekin.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Asteburu honetan Euskal Herriko bigarren mailako taldekako txapelketa jokatu da Basaurin.

Atletiko taldeok ere hantxe izango dira, beste zazpi talderekin batera. Txapelketa honetan sailkatzen diren lehengo bi taldeak, lehen mailara igoko dira.

JONAN FERNANDEZ (ELKARRIKO KOORDINATZAILEA)

“Irlandan bezala, Stormont

Jonan Fernandez, Elkarriko koordinatzailea da azken sei urte eta erdian. Joan den aste-ko ostegunean Arrasaten izan zen, Eraikikasi “erraztu”ren aurkezpena egiten. Baina zer da proiektu berri hori? Hortaz eta hartaz duen iritzia ezagutu nahian elkarrizketatu genuen Jonan Fernandez.

— Zer da Eraikikasi izeneko proiektua?

— Bizi dugun egoeraren aurrean galdera bi egin daitezke: zer da bake prozesu bat eta zer da nik egin dezakedana. Proiektuaren helburua da herritarrak informatzea eta hausnartzeko elementuak ematea. Material didaktikoa da. Euskal Herriko 40.000 helbidetara bidali da, tartean eskolak, taldeak eta gizabanoak. Urtebeteko plana da.

— Bakebidea zein egoe-ratan dago?

— Bake prozesu baterantz inguratzen ari gara. Bake prozesuaren testuinguru batean gaude, baina bake prozesu eraginkor baterako bi elementu behar dira: baretzea eta elkarrizketa. Egoera lasaitze-ari dagokionez, asko aurrera-tzen ari gara, baina elkarrizketaren bidean ez da gehiegi egin. Lehentasuna du elkarrizketaren arloan aurrera-pausoak egitea norabide guz-tietan.

— Elkarrik dekalogorik badu bakebide-rako?

— Ez. Ideiak bai, baina dekalogorik ez. Gure eskemaren arabera, egoera baretzeak eta elkarrizketak bat egitean, bakebide batera iritsiko gara. Hortik aurrera, hiru zutabe izango genituzke: prozedura demo-

kratikoak lantzea (elkarrizke-ta, akordioa eta herri kontsul-ta), eduki bateratzaileak bilatu sakoneko arazoei erantzuteko eta jarrera eraikitzaileak (elkarlana erraztu eta ez baztertu).

— Kale borrokak zer eragin du egungo egoeran?

— Oso txarra, gaizki dago-elako eta

aitzakiak ematen dizkielako inobilismoa defendatzen dutenei. Bakebidearen oztopoak zeintzuk diren jakiteko, bi indikadore horiei begiratu behar diegu, elkarrizketari eta indarkeriari. Indarkeriaren indikadorean bi oztopo nagusi daude: Espainiako gobernuaren politika presoen inguruan eta kale borroka. Elkarrizketari begiratu gero, ekimen falta dago elkarrizketari ekiteko.

— Zein da Elkarriren lana bakebidean?

— Gizartearen ikuspuntu-tik, adiskidetze kultura bat eratztea eta politika arloan, eragina dugun neurrian alderdi politikoaren arteko foro bat eratztea. Irlandan bezala, hemen ere Stormont bat izan beharko genuke.

— Nola finantzatzen da Elkarriz?

— Kostata.

“Lizarra-Garaziko akordioa gizarte osoari zabaldu beharko litzaioke: abertzale zein ez abertzaleei”

...mont bat beharko genuke”

Perspektiba piska batekin, autokritika egin behar dugu hain polemikoa izan zen loteriaren gainean: ez digu dirurik eman eta buruhaustea, berriz, bai. Gure finantziazioaren ardatza bazkideak dira: 3.000 bazkide, hileroko 1.500 pta ordaintzen dutenak.

— Non oinarritzen da Elkarri lana antolatzen?

— Arazoetan. Asmo berriak genituen, baina hortik aurrera ebaluazioa. Kalitatearen inguruan dauden ideia batzuk ere aplikatu ditugu. Nahiko autodidaktak izan gara.

— Lehen ETA zen eta orain modu baketsu batean lanean ari diren alderdiak eta taldeak. Zer egin behar da, ixilik egon?

— Irizpide bakarra proposatuko dut: era propositiboan eta positiboan lana egin. Horrekin ahots horiek isilduko ditugu. Lizarrako akordioaren sinatzaileek ekintzekin adierazi behar dugu hitzekin esaten duguna. Lizarra-Garaziko akordioa gizarte osoari zabaldu beharko litzaioke: abertzale zein ez abertzaleei. Ahalegin izugarria egin behar da gauzak nolakoak diren era-

kusteko. Horrek ez du esan nahi ez dela iskanbilarik edo eztabaidarik egon behar. Hori ona da, baina kezagarriena da dena hori izatea. Behar-beharrezkoak dira ekimen positiboak eta proposatzaileak. Ez gara defentsiban egon behar, baizik eta ekimenak aurrera atera eta gizarte osoari eskaini.

— Elkarrik hizkuntza berri bat sortu du?

— Inork gure gatazkaren azterketa egingo balu, ikusiko luke hitz batzuek arantzak dituztela. Esate hutsarekin

zaildu egiten dutela liskararren konponbidea. Saiatu gara hitz leunagoak erabiltzen. Lizarrako akordioa sinatzeko, nola elkartzen dituzu zuk EAJ, EA, EB eta HB, ez baduzu arantzarik gabeko hitzik?

— Noraino eraman daiteke autodeterminazio eskubidea?

— Ez da imajinatu behar autodeterminazioa desegigo baten antzezpena bezala. Prozesu bat izan behar da. Politikoei elkarriketa bidez negoziatu eta jendeari kontsulta behar diote. ■

zarpatak
arrapak
taturajek
bodypierce
Mondragon
Arrasate

TOTEM

943 79 49 72 / 943 79 44 88
Zarugalde, 14 • ARRASATE

Martxe Aranaren margoak Salamancan

Martxe Aranak aspaldidanik du marrazteko zaletasuna. 25 bat urte zituela, Madril en aritu zen margo eskola batean, eta han ezagutu zituen hiru lagunekin (bi madrildarrekin eta salamancar batekin) egin du erakusketa apirilaren 10etik 24ra, Salamancako Caja Due-ro erakusketa aretoan.

Hau ez da Martxek egin duen lehenengo erakusketa. Duela bi urte Harresi aretoan erakutsi zituen hainbat margo. Iaz ere bi erakusketa egin zituen: Zamoran eta Valenzian.

Bi teknika erabiltzen ditu



Martxe Arana.

batez ere Martxek: olioia eta gouachea. Paisaiak, barruko irudiak, konposizioak, loreak, itsasoko irudiak, sareak kon-

pontzen dituzten emakumeak... marraztu ohi ditu. Izena ere jartzen die Martxek margolanei, baina horrek ez dio buruhauste handirik sortzen: "zailena motiboa aurkitzea da. Hori asmatuta, gainontze-koa ez da zaila. Gero lan batzuekin beste batzuekin baino gusturago geldi zaitezke, baina nire asmoa beti hobetzea da".

Datorren urtean Zarautzen egingo du beste erakusketa bat, Torreluzea erakusketa aretoan. Aurrez egin izan ditu areto horretan beste erakusketa batzuk.

Arrasate ikastolaren kultura astea

San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastolek kultura astea antolatu dute maiatzaren 3tik 8ra, Arrasateko Udala eta Sasaki Baskoniaren laguntzarekin. Egun horietan hainbat ekimen egingo dituzte. Batetik, haur hezkuntzako ikasleek hainbat dantza ikasiko dituzte aiton-amonen egunean, maiatzaren 6an, kaleratzeko. Bestalde, lehen hezkuntzako ikasleek euskal dantzak eta areto dantzak ikasiko dituzte, eta DBHko ikasleek ere hainbat ekintza izango dituzte eskura: aerobica, gorren lantegi, braille lantegia, sukaldaritza, argazkilaritza, bertso lantegia, zeramika, dantzak...

Arrasate ikastolaren eguna, berriz, maiatzaren 8an ospatuko dute. Goizeko 10:30ean hasiko dute jaia, etxalderu jaurlaketarekin. Dantza eta gastronomia hartu dituzte egun horretarako gai nagusitzat, eta Andaluzia, Extremadura eta Galiziako janariak dastatzeko aukera ere izango da, besteak beste.

Sexualitateari buruzko zine zikloa maiatzean

Maiatzean ostegunero sexualitatearekin lotura duten filmak ikusteko aukera izango da Amaia antzokian.

Maiatzaren 6an emango dute "Gu biok", ziklo hau irekiko duen filma. Harry Mitchell transbordadore bateko gidariaren istorioa kontatzen du. Alarguna eta garagardo edale amorratua da Mitchell, eta egunerokotasunean bizi

duen bakardadearekin amaitzeko emakume bat aurkitu nahi du. Bere seme Jeffkirolaria da, errugbi jokalaria eta, aitaren gisa, garagardo edale amorratua. Baina, gay ere bada, eta horrek markatuko du funtsean bere bizimodua.

1994an egindako filma da, Kevin Dowlingen eta Geoff Burtonen zuzendari-

tzapean. Sidneyko zine jaialdian ikusleen saria lortu zuen, eta Montrealgo zinemaldian, berriz, gidoirik onenaren saria.

Hurrengo asteetan "Ez esan inori", "Sua", eta "Gauzen edertasuna" eskainiko dituzte. Film guztiak gaueko 21:30ean izango dira. Sarrerak 450 pta balioko du (gazte txartelarekin, 400).

Edertu ileapaindegia



Solariuma
10 saio 8.000 pta

San Andres jai zoriontsuak izan!!

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

**TOLDOS
LECE** C/B

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83
Faxa: 943 77 04 45

MIKEL MARKEZ, KANTARIA

“Kantagintza utzi egingo dut denboratxo batean”

Joan den eguakoitzean Pako Aristi eta Mikel Markez izan ziren Monterron jauregian, “Tribuaren hitz galduak” musika eta poesia emanaldia eskaintzen. Ez du luzaroan segituko ikuskitzun horrek, baina etorkizunera begira baditu zenbait proiektu. Gero, berriz, denboraldi batean ez dugu plazetan kantari ikusiko.

— Noiz hasi zinen kantagintzan?

— Gure etxean betidanik izan da gitarra bat, eta ni umea nintzela, nire anaiak jotzen zuen. Ni 14 bat urterekin hasi nintzen jotzen. Hasieran beste zenbaitzuen kanta jotzen nituen, bai Euskal Herriko kantariak eta gaztelaniaz kantatzen zutenenak. 15 urte nituela, lehendabiziko kanta asmatu nuen, eta 17rekin lehenengo maketa atera nuen, bost kantarekin. Gero, lehendabiziko diskoa 19 urterekin egin nuen: “Eta etorri egin zait”. Geroztik beste hiru atera ditut: “Oroitzapenak oparitzen ditut”, “Zertarako mugak jarri” eta “Kantu erotikokoak”.

— Horietatik zein duzu gustukoena?

— Gehien “Kantu erotikokoak” diskoarekin identifikatzen naiz. 16 urterekin egindako kantetan nire orduko bizipenak islatzen nituen, eta jada piska bat urruneko gelditzen zaizkit.

— “Tribuaren hitz galduak” emankizuneari zer kontatzen duzue?

— Hasieran “txapa” antropologiko bat sartzen dugu. Material gehiena liburuetatik jaso dago, eta hainbat lekutako tribuen benetako istorioak dira. Horren bueltan hitzaren eta musikaren arteko teoriatxo batzuk sortzen saiatzen gara, gaur egungo gizaratearekin eta Euskal Herriarekin parekatuz. Hori da emanaldiaren bizkarrezurra. Gero, tokian-tokian



gauza ezberdinak egiten ditugu: itsasertzeko herri batean bagaude, marinel giroko poemak izaten dira gehiago, eta barrualdean baserri girokoak gehiago. “Ilargi betearren ordua” izeneko atal bat ere badugu, eta hor bisitatzen dugun herriko norbait gonbidatzen dugu zerbait egin dezan gurekin batera.

— Noiz arte eskainiko duzue emankizun hau?

— Azaroan hasi ginen, eta urtebete inguruan eskainiko dugu, urria arte edo.

— Zer nolako harrera izan du Euskal Herrian oro har eta bereziki Arrasaten?

— Ona, esango nuke. Toki guztiak diferenteak dira, eta ezberdintasun handia dago non, nola, zergatik programatzen den eta emanaldiari egiten zaion publikitatearen arabera. Dena den, jende gutxi etorri arren ere,

oso garrantzitsua da jende horrek zer moduz pasatzen duen.

— Poesiak eta musikak zein harreman dute zuen emankizuneari?

— Poesia gehiena Pakok ekartzen du, eta nik gehien bat musika. Baina bata bestearen eremuan sartzen ere saiatzen gara. Honela, Pakok pianoa eta gaita jotzen ditu, eta nik ere gauza dexente irakurtzen ditut.

— Poesiak zein leku betetzen du Euskal Herrian gaur egun?

— Azken aldian poeta gazte dexente sortzen ari direla uste dut. Lubaki Banda sortu zenean gazteen poesia birsortzen hasi zen. Beste edozein gizaratan bezala, poesiek badu bere tokia Euskal Herrian.

— Zertan aldatu da poesia Lizardiren garaitik gaur egunera?

— Euskara aldatu egin da batasunaren ondorioz, eta poesia ere aldatu egin da formei dagokionez. Lizardiren ostean Aresti, Bitoriano Gandiaga eta Letek poesia soziala egin zuten, eta Ez Dok Amairuren bueltan, poesia kantatua ere sortu zen... bilakaera gizarateak eskatzen zuen arabera izan da. Orain jendea libreagoa da idazterako orduan, behar bada.

— Etorkizunera begira zein proiektu duzu?

— Pakoren poesiari buruzko antologia kantatua egin dut, eta disko bat erdibana egingo dugu. “Tribuaren hitz galduak” lanaren lekukotasuna ere utzi nahi dugu konpakto batean. Gero nire buruari atsedena eman nahi diot, eta kantagintza utzi egingo dut denboratxo batean.

“Azken aldian poeta gazte dexente sortzen ari direla uste dut”



Estatu Batuetara bidaiatuko dugu Munduari Bueltaka saioan.



San Andresko jaiak ospatuko dira asteburu honetan.

San Andres jaiak ATBn

Asteburu honetan ospatuko dira San Andres jaiak. Hori dela eta, ATBk ahalegin berezia egingo du jai giroa zuen etxeetaraino eramate aldera.

Horrela, asteazkenean gaueko 21:30ean Maier Urangak aurkeztuta, San Andresko jaien berri izango duzue. Txokolata-da, mus txapelketa, aerobic era-

kustaldia, pailazoak, kaleko giroa eta beste hainbat gauza ikusi ahal izango dira ATBn asteazkenean, gaueko 21:30etik aurrera.

ZORIONE BALANTZATEGI

Gari Kortazarrek aurkezten duen saioan Zorione Balantzategi izango da aste hone-

tako gonbidatua. Zorione EEBbetan eta Kanadan izan zen pasa den urteko abuztuan bere senarrarekin batera eta han ikusitako eta bizi izandako esperientziak kontatuko dizkigu ATBn.

Los Angeles, Kalifornia, San Frantzisko, Quebec edo Montreal bezalako hiri han-

diak ikusi ahal izango ditugu eta baita Monument Valley edo Yosemite bezalako parke natural zoragarriak ere.

Beraz, badakizu, zure etxetik mugitu gabe munduari bueltatxo bat eman nahi baldin badiozu, piztu ATBn asteazken gauean 21:30etik aurrera. Ez ahaztu!

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 1	ASTELEHENA, 3	ASTEARTEA, 4	ASTEAZKENA, 5	OSTEGUNA, 6	OSTIRALA, 7
<p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Jolasplast, Musiklasik, Mahai ingurua, Ekilan eta Soinuz Blai.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Astebete errepika.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Mondrasport: Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepasoa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Mondrasport (errepika.)</p> <p>19:20 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haur jolasen saioa.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Munduari bueltaka. Garikoitz Kortazarrek aurkeztutako saioa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Munduari bueltaka (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 San Andresko jaiari buruzko saio berezia, Maier Urangak aurkeztuta.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 San Andresko jaiak (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Kaleidoskopioa. Aitziber Langaran eta Unai Iparragirrek aurkeztutako saioa.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkezten duen musika saioa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Kaleidoskopioa (errepika)</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Astebete. Maider Osa aurkeztuta.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkeztuta.</p>
<p>IGANDEA, 2</p> <p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Jolasplast, Musiklasik, Mahai ingurua, Ekilan eta Soinuz Blai.</p>			 <p>Maier Uranga.</p>		 <p>Maider Osa.</p>

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Elorregi auzoan, Bergaran. Tel.: 943 76 07 47.

• Etxebizitza salgai. Erdialdean dago, Monterron ondoan. Osorik berrizteko. Oso merke. Tel.: 94 445 96 19.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 20 35 12.

3. Errentan emateko

• Apartamentua alokagai Torreviejan. Erabat horniturik dago, eremu residentzial batean, igerileku eta guzti. Abuztuan eguneko 8.000 eta. Hamabost egunerako edo hil osorako. Tel.: 943 79 53 18.

• Arrasateko erdi aldean etxebizitza txiki bat alokatzen da. Tel.: 943 72 46 17 (deitu 18:00etatik 22:00etara).

• Gela bat daukat alokatzeko erdialdean. Tel.: 943 79 68 00

4. Errentan hartzeko

• Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).

• Etxebizitza nahi dugu alokatu, Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61

5. Etxeak osatzeko

• Logela baten bila nabil etxebizitza partekatutako batean. Tel.: 943 42 98 19 (Noel).

• Pertsona euskalduna behar da etxebizitza osatzeko Arrasaten. Tel.: 943 85 04 86.

• Etxebizitza osatzeko laguna behar da, Jauregiarren kalean (Erguin). Tel.: 943 79 27 64 (gauetz).

• Gela bat alokatuko nuke erdialdean. Tel.: 943 79 68 00.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Kontzezinon. Tel.: 943 79 54 07.

ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxeak osatzeko
- Bestelakoak

GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Garajea salgai. Bi autorentzako lekua du. 40m². Aldai kalean. Tel.: 945 46 14 78.

• Garaje itxia salgai Larrea aldean. 2 m², eta bi autorentzako lekua dauka. Tel.: 943 79 69 41. (Mari).

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzeko, Urizarri Etorbidean. Tel.: 943 79 35 24.

10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko bi solairu dituen tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

• 60 m² zabal eta 4 metro garai den lokala salgai edo alokagai. Erdialdean, argitsu. Gaur egun ile apaindegi eta edertze areto bezala erabiltzen da. Bitarte 17, eskuina. Tel.: 943 77 12 70.

14. Errentan emateko

• Lanean dabilen taberna alokatzen da Urizarri etorbidean. Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 81.

• Toki bat alokatzen da Anboto kalean. 75 m² ditu. Tel.: 943 79 98 07 (gauko 21:00etatik aurrera).

15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 40 65 (Maitane).

• Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

LANA

17. Eskaintza

• Ingeles eta frantseseko itzulpenak egiten ditugu. Merke eta azkar. Tokiko profesionalak. Tel.: 943 77 18 23.

• Andra euskalduna behar da pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 07 73.

• Neska arduratsuak umeak zainduko lituzke. Deitu goizetan edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera 943 71 53 74 telefonora.

• Andra euskalduna prest etxeko lanak egin, umeak zaindu edo jende heldua zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Esperientziadun emakumea prest adineko pertsonak zaintzeko. Tel.: 943 77 04 60.

• Emakume bat prest pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Tel.: 943 77 04 60. Margari.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko, esperientziaduna (18:00etatik 21:00etara). Tel.: 606 54 93 29. Jesus.

• Pertsona bat behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Esperientzia ez da beharrezkoa. Hilero bi asteburu eta bi larunbat gauetz. Tel.: 943 78 22 10. Jasone.

• Emakume euskaldun arduratsua behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 05 77.

• Pertsona euskalduna behar da zerbitzari lanak betetzeko. Tel.: 945 44 50 86.

• Jatetxe batean mahaiak zerbitzeko neska behar da asteburu eta jai egunetarako. Tel.: 71 64 70.

• Neska behar da fruta denda batean lan egiteko. Tel.: 943 77 01 79.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Margolaritza eskolak ematen ditut, marrazki artistiko eta olio estiloetan. Gaztetxean galdetu.

• Biologian lizentziadunak kimika eta matematikako eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 943 79 16 39. Amaia.

• Lehen eta bigarren heziketarako eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 83 46.

21. Eskaerak

• Alemanierako eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 24 18. Amaia.

• Marrazketako eskolak hartuko genituzke, COU eta FP2ko mailakoak. Tel.: 943 79 25 94.

MOTORRA

23. Saldu

• Ford Escort RS-Turbo, estrarekin, salgai. Matrikula: SS - AG. Tel.: 639 38 87 77

• Renault Super 5 zuria SS - AB salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 68 75.

• Opel Corsa GSI (VI - K) salgai. Tel.: 609 28 65 82 (20:00etatik aurrera).

• Ford Courier 1.800 diesel salgai. Matrikula: SS - AN. Deitu 943 79 82 09 telefonora.

• Trialeko motorra salgai. (Beta-250 c.c). Oso egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 76 19 88 (gauetz).

• Aprilia SR 50 motorra salgai, ia berria eta bermearekin. Tel.: 649 67 28 54.

• Auto bat salgai Super 5 7-L 1.500. Matrikula SS-AD. Tel.: 943 79 65 43.

• Opel Corsa 16 autoa salgai. Matrikula: V-K. Tel.: 609 28 65 82. 20:00etatik aurrera.

• Yamaha YZ Motocross salgai. 94. urtekoa da, egoera onean dago eta 300.000 pta.tan saltzen dut. Tel.:

943 79 78 36. Unai.

• Peugeot 309, GTI (SS-Z) saltzen dut. Tel.: 943 79 74 65 edo 619 812 090, prezio onean.

DENETARIK

26. Saldu

• Ehiza txakurrak salgai (setter ingelesak). Interesatek deitu 943 71 48 90 telefonora 13:00etatik 15:00etara. Emilio.

• 270 litroko kutxa izoztailea salgai, berria, 25.000 pta.tan. Tel.: 943 79 55 28

• 27 liburukiz osatutako entziklopedia berriztatua. BBB, (FP) eta unibertsitateko ikaleentzat egokia. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.

• Musika katea salgai: Pletina, sintetizatzailea, disko jogailu, diskoak gordetzeko altzaria eta hiru bideko baffleak. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.

• Lursaila salgai, Marinen (Eskoriatza). 7.000 m², txabolarekin. Tel.: 943 77 05 70. (Tin).

• Lehen Jaunartzerako soinekoa sal-

gai. Behin bakarrik erabilia. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 945 27 99 16. 20:00etatik. 22:00etara.

• Toldoa duen eta 2-4 pertsonarentzat den kanpin denda berria salgai. Tel.: 943 74 05 37. Mila.

• Añamendiren Euskal Herriko Entziklopedia orokorra ilustratua salgai. Prezio onean eta egoera ezin hobean. Tel.: 943 79 12 95.

• Karabanako ispilu pare bat salgai. Ia berriak daude eta 5.000 pta balio dute. Tel.: 943 78 12 73. Jaione.

• Pentax Z-1 argazki kamera, 28-80 objektiboduna, eta FTZ-400 flasha saltzen ditut. Oso gutxitan erabilia. Tel.: 943 79 21 35

27. Erosi

• 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. Tel.: 943 71 50 87.

29. Eman

Sofak oparitzen dira. 2 modulo, bien artean 2,35 m. okupatzen dute. Tel.: 943 77 16 45. Edozein ordutan, edo mezua utzi.

31. Galdu

• Larunbatea urrezko eraztun-zigilua galdu nuen, SC siglekin. Barrualdean Vicente eta 11-3-99 data dauka. Tel.: 943 79 85 81. Sarituko da.

• Martxoaren 27an Canon markako argazki kamera galdu nuen Ostarkun. Tel.: 943 77 09 56 (Tania)

32. Aurkitu

• Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.


33. Bestelakoak

• Bolinete errotako argazki bat lortu nahi nuke, kopia bat ateratzeko. Tel.: 943 72 55 92 / 609 55 08 40.

HARREMANAK

37. Bestelakoak


• Orrialde hauetako irakaskuntza sailko eskaeretan agertzen den "gazelaniako eskolak hartuko nituzke" iragarkiarekin deia hartu zuenak, mesedez deitu berriz ere 943 79 79 12 telefonora.



WERU®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



**PVC-zko ate eta leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...**



Juan Saiz García eta Piedad Moreno Diez maiztaren 2an ezkondu ziren orain 50 urte. Beraz, argazki hau 1949. urtekoa da.

Burgosko San Adrian de Juarroseko Nuestra Señora de la Asunción elizan ezkondu

ziren, ikusten duzuen moduan, beltzez eta ez zuriz orain ohitura den legez. Gainera, orduko garaiak gogorak izaki, ezkondu eta hurrengo eguntan ez zuten inolako eztei bidaiarik izan. Betiko moduan goizean goiz jaiki eta larrera joan ziren lanera.

Baina ahal denean behintzat, ospakizunetarako astia atera behar da. Eta horixe bera da bikote honek eta euren senitartekoek bihar egingo dutena. Eguerdiko 13:00etan Garagartzako San Migel elizan meza entzun eta ondoren San Andreseko Torrepe elkartean 20 bat

lagun elkartuko dira urteurren berezi hau ospatzeko.

Bestalde, argazkiko senar-emazteen sei seme-alabek bihotz-bihotzez zoriondu nahi dituzte gurasoak.

Argazkia eta berriemailea:
Felix Saiz Moreno.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA




DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Spek
Denda
S

Iturriotz, 19 Herriko plaza
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 29



ALTZARIAK



Araba Etorb. 20 • Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte, 3 • Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

**Teknologia eskubide bat da,
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan da teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez da pribilegioa.

Serieko ekipamendua: ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohídraulikoa, korrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Hor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

TALLERES OLA

OPEL
INGENIARITZA ALEMANA ZURE

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(escatu pabiloia). Tel.: 943 79 05 86